

NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IV. legegintzaldia

Iruñean, 1999ko martxoaren 22an

23 ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru Lege Proiektuak:

- Foru Legea, Nafarroako Foru Komunitateko Ureztaketa Planean sartutako ureztaketetako jarduketa eta obrei buruzkoa. Osoko Bilkurak onetsia (2. or.).
- Nafarroako Kontseiluari buruzko Foru Legea. Osoko Bilkurak onetsia (5. or.).
- Nafarroako Errege Bardea Parke Natural deklaratzeko Foru Lege proiektua. Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Batzordeak onetsitako irizpena (11. or.).
- Foru Lege proiektua, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren fakultatiboentzako lanbide karrerako sistema arautzen duena. Osoko Bilkurak baztertutako osoko emendakinak (15. or.).

B SAILA:

Foru Lege Proposamenak:

- Nafarroako Administrazio Publikoen Kontratuari buruzko ekainaren 16ko 10/1998 Foru Legea aldatzeko Foru Legea, administrazioarekin kontratatu ahal izateko betekizunen arloko hainbat kontzepturi dagokiona. Osoko Bilkurak onetsia (16. or.).
- Foru Legea, lanaldia 35 ordukoa izan dadin laguntzeko lan denbora banatzeko neurri publikoak ezartzeari buruzkoa. Osoko Bilkurak onetsia (17. or.).
- Foru Lege proposamena, eskubide sozialen gutun baterako. Gizarte Gaietako Batzordeak onetsitako irizpena (19. or.).

G SAILA:

Jakinarazpenak, Deialdiak eta Oharrak:

- “Ingurugiroaren kudeaketa” deritzon aurrekontu-programari buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganbarak egina (22. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Legea, Nafarroako Foru Komunitateko Ureztaketa Planean sartutako ureztaketetako jarduketa eta obrei buruzkoa

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 1999ko martxoaren 11n egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako Foru Komunitateko Ureztaketa Planean sartutako ureztaketetako jarduketa eta obrei buruzko Foru Legea onetsi zuen.

Biltzarreko Erregelamenduko 143. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1999ko martxoaren 15ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Foru Legea, Nafarroako Foru Komunitateko Ureztaketa Planean sartutako ureztaketetako jarduketa eta obrei buruzkoa

Nafarroako Parlamentuko Nekazaritza, Abeltzaintza eta Mendi Batzordeak, 1998ko abenduaren 2an egindako bilkuran, Nafarroako Foru Komunitateko Ureztaketa Plana onetsi zuen, horren inguruko ebazpen proposamenarekin batera.

Ebazpen proposamen horren barruan, Garatu beharreko Jarduketa Programen artean, "Lege mailako Garapena" izeneko Programa sartu da. Bertan, Nafarroako Gobernuari eskatzen zaio hiru hilabeteko epearen barruan, Foru Lege Proiektu bat bidal diezaion Nafarroako Parlamentuari, hain zuzen Nafarroako Foru Komunitateko Ureztaketa Planean sartutako ureztaketetako jarduketa eta obrak zerrendatzeko eta, orobat, lur horien onura publikoa edo interes soziala deklaratu eta ureztaketako lurak lurzoru urbanizaezin gisa babesteko behar diren zehaztapenak biltzeko, interes publikoa dela kausa izan litezkeen salbuespenak onartzeko aukera galarazi gabe.

Foru Lege Proiektu horren bidez, ahalmena emanen zaio Nafarroako Gobernuari aipatu jarduketa eta obren zerrendan aldaketa puntualak egiteko, foru dekretu bidez, arrazoituak beti ere,

inguruabar bereziak direla-eta, lur gehiago sartzeari edo daudenak oso-osorik edo neurri batean aldatzea beharrezkoa edo komenigarria dela ikusten bada. Foru Lege Proiektu horrek, bestalde, bidea eman beharko luke Nafarroako Foru Komunitateko Ureztaketa Planaren jarduketa eta obrak finantzatzeko aurreikuspenak Nekazaritzako Azpiegituren Erreformari buruzko abenduaren 9ko 18/1994 Foru Legean eta Nekazaritzaren Finantzioari buruzko lege mailako xedapen guztien Testu Bategina onetsi zuen otsailaren 16ko Legegintzako 54/1998 Foru Dekretuan adierazitakoari moldatzeko.

Nafarroako Foru Komunitateko Ureztaketa Planari atxikitako ebazpen proposamen horretan adierazitakoa betearazteko, bidezko da dagokion Foru Legea artikulatzea, batetik, Planean aurreikusitako ureztaketetako jarduketa eta obrak zerrendatzeko, eta bestetik, ebazpenean bildutako zehaztapenak emateko, hori guztia Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren indarrez, Nafarroako Foru Komunitateak ureztaketan, nekazaritzaren, herrilaren, ingurugiroaren eta lurraldearen antolamenduaren arloetan dituen eskumenak baliatuz.

1. artikulua. Foru Lege honen Eranskinean azaltzen diren ureztaketetako obra eta jarduketak Nafarroako Parlamentuko Nekazaritza, Abeltzaintza eta Mendi Batzordeak 1998ko abenduaren 2an egindako bilkuran onetsitako Nafarroako Foru Komunitateko Ureztaketa Planean sartuko dira.

2. artikulua. Nafarroako Gobernuak ahalmena du Foru Lege honen Eranskinean eta Ureztaketa Planean agertzen diren jarduketa, obra, esparru eta diru-zenbatekoetan aldaketa justifikatuak egiteko, Nekazaritzako Azpiegituren Erreformari buruzko abenduaren 9ko 18/1994 Foru Legeari jarraikiz, kasuan-kasuan gertatzen diren inguruabarren arabera.

3. artikulua. 1. Foru Lege honen Eranskinean zerrendatzen diren jarduketa eta obren onura publikoa eta interes orokorra deklaratzeko da, bai halaber, 2. artikuluan adierazitakoari jarraikiz, indarra duen legerian ezarritako bidezko helburu eta ondorioetarako, Nafarroako Gobernuak zerrenda horretan gero sartzen dituen guztiena.

2. Zehazki, Nafarroako Foru Komunitatearen eskumenez den bezainbatean, ondorengo lan hauen onura publikoa eta interes orokorra deklaratzeko da, ondorio guztietarako: Nafarroako Ubi-dearen obra eta jarduketak, eta haren eraginpeko eskualde ureztagarrien ureztaketak ezarri eta hobetzekoak.

4. artikulua. Foru Lege honen babesean sustatzen diren ureztaketetako obra eta jarduketak Nekazaritzako Azpiegituren Erreformari buruzko abenduaren 9ko 18/1994 Foru Legean eta aplikatu beharreko gainerako xedapenetan aurreikusitakoari jarraikiz burutuko dira.

5. artikulua. Foru Lege hau eta Nafarroako Foru Komunitateko Ureztaketa Plana garatu eta aplikatzeko behar diren obra eta jarduketan finantzazioari dagokionez, Nafarroako Gobernua Nafarroako Foru Komunitatean dauden finantzabideak hobetzeko izan litezkeen Estatuko edo Europako Batasuneko xedapen, programa eta planetan ezarritakoaren menean egonen da, eta, zehazki, honakoetan adierazitakoaren: Nekazaritzako Azpiegituren Erreformari buruzko abenduaren 9ko 18/1994 Foru Legea eta Nekazaritzaren Finantzazioari buruzko lege mailako xedapen guztien Testu Bategina onetsi zuen otsailaren 16ko Legegintzako 54/1998 Foru Dekretuaren III. Titulua. Hori horrela, jarduketa eta obra horiek finantzatzeko egokien juzkatzen dituen baliabide ekonomiko eta administratiboak lortzeko behar diren Hitzarmenak sinatu ahalko ditu.

6. artikulua. Lurraldearen eta hirigintzaren antolamendurako baliabideetan, orohar, behar diren zehaztapen eta aurreikuspenak sartu behar dira Ureztaketa Planean eta Foru Lege honen Eranskinean ureztagarri gisa deklaraturiko eskualdeak hiri-garapenaren prozesuaz babesteko. Hori helburu, lur horiek lurzoru urbanizaezinen sailean segituko dute eta babesteko behar duten kasu kasuko hirigintza kategoria emanen zaie, salbu eta interes publiko edo sozialeko arrazoi justifikatuak tarteko, hiri lurzoru edo lurzoru urbanizagarri bihurtzea komenigarria baldin bada.

Xedapen gehigarria

Nafarroako Gobernuari esleitu zaizkion ahalmenak galarazi gabe, Nekazaritza, Abeltzaintza

eta Elikadura Departamentuari dagokio, dela zuzenean, dela "Riegos de Navarra, SA" kapital publikoko enpresaren bitartez, Nafarroako Ureztaketa Plana sustatu, garatu eta burutzea, Foru Komunitateko eskumenean esparruan.

Azken xedapenak

Lehena. Nafarroako Gobernuari ahalmena ematen zaio Foru Lege hau eta Nafarroako Foru Komunitateko Ureztaketa Plana garatu eta aplikatzeko behar diren erregelamenduzko xedapenak eman ditzan.

Bigarrena. Indarrik gabe uzten dira Foru Lege honetan ezarritakoari aurka egiten dioten maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak.

Hirugarrena. Foru Lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra.

ERANSKINA NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO UREZTAKETA PLANA OSATZEN DUTEN JARDUKETA ETA OBRAK

I. EGUN DAUDEN UREZTAKETAK GAURKOTU ETA HOBETZEA

Aurreikusi den azalera, guztira: 18.908 hektarea

Onuradunak: 6.000.

Inbertsiorako kalkulatu den gehieneko kostua: 18.630 milioi pezeta.

Finantzazioa: Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentua.

Burutzeko kalkulatu den epea: 1998-2018.

Jarduketa berariazkoak:

1.1. Viana I, Caparroso (Bayunga) eta Ega Ibarra.

Azalera: 2.104 hektarea.

Burutzeko epea: 1998 eta 1999.

1.2. Santacara, Mélida eta Azkoien-Marcilla.

Azalera: 713 hektarea.

Burutzeko epea: 1998 eta 1999.

1.3. Traibuenas (Bayunga), Zarrakastelu II (La Esperanza), Gares, Arguedas (Tuterako ibaibidea), Murillo el Fruto (Ubide Inperiala), Abartzuza eta Cabanillas (Tausteko Ubidea).

Azalera: 4.639 hektarea.

Burutzeko epea: 1999-2001.

1.4. Beste eskualde batzuk, sinadura bilketa fasean edo sustapen fasean daudenak.

Azalera: 11.452 hektarea.

Burutzeko epea: 2001-2008.

II. BURUTZE FASEAN DAUDEN ESKUALDE UREZTAGARRIEN FINANTZAZIOA.

Aurreikusi den azalera, guztira: 1.303 hektarea.

Onuradunak: 706.

Inbertsiorako kalkulatu den gehieneko kostua: 1.309 milioi pezeta.

Finantzazioa: Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentua.

Burutzeko kalkulatu den epea: 1998-2001.

Berariazko jarduketak:

2.1. Caparroso eta Balsilla Marín.

Azalera: 116 hektarea.

Inbertsiorako kalkulatu den gehieneko kostua: 188 milioi pezeta.

Burutzeko kalkulatu den epea: 1998-2001.

2.2. Mendaviako El Rubio Alto.

Azalera: 835 hektarea.

Inbertsiorako kalkulatu den gehieneko kostua: 848 milioi pezeta.

Burutzeko kalkulatu den epea: 2000-2001.

2.3. Viana II.

Azalera: 352 hektarea.

Inbertsiorako kalkulatu den gehieneko kostua: 273 milioi pezeta.

Burutzeko kalkulatu den epea: 2000-2001.

III. UREZTAKETA BERRIAK JARTZEA.

Aurreikusi den azalera, guztira: 60.433 hektarea.

Onuradunak: 13.717.

Aurreikusitako jarduketak:

3.1. Nafarroako Ubidearen eraginpeko eskualde ureztagarriak.

Azalera: 57.683 hektarea.

Onuradunak: 13.000.

Finantzazioa: Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuaren kargura izateko

aurreikusi den diru kopurua 68.502 milioikoa da, honela xehekatua:

– Lurzatien berrantolamenduari buruzko azterlan teknikoak: 1.705 milioi.

– Lurzati berrantolamenduko bideak eta saneamendu obrak: 6.622 milioi.

– Ura eramateko oinarritzko sarea: 14.312 milioi.

– Ureztatze-ahorainoko banaketa sarea: 33.602 milioi.

– Lurzatietan instalatzeko obrak: 12.802 milioi.

Burutzeko epea: 2001. urtetik 2018.era arte.

3.2. Ureztaketa sozial berriak.

Azalera osoa: 2.750 hektarea.

Onuradunak: 717.

Inbertsiorako kalkulatu den gehieneko kostua: 2.621 milioi pezeta.

Burutzeko kalkulatu den epea: 2008. urtea baino lehen.

Honako jarduketa berariazko hauek biltzen ditu:

A) Funes

Azalera: 500 hektarea.

Inbertsiorako kalkulatu den gehieneko kostua: 435 milioi pezeta

B) Irunberri

Azalera: 100 hektarea.

Inbertsiorako kalkulatu den gehieneko kostua: 148 milioi pezeta

C) Urraulbeiti-Irunberri

Azalera: 250 hektarea.

Inbertsiorako kalkulatu den gehieneko kostua: 238 milioi pezeta

D) Deierrri

Azalera: 200 hektarea.

Inbertsiorako kalkulatu den gehieneko kostua: 200 milioi pezeta

E) Andosilla

Azalera: 800 hektarea.

Inbertsiorako kalkulatu den gehieneko kostua: 700 milioi pezeta

F) Beste eskualde apalago batzuk

Azalera osoa: 900 hektarea.

Inbertsiorako kalkulatu den gehieneko kostua: 900 milioi pezeta.

IV. BESTE JARDUKETA BATZUK.

Atal honetan sartzen dira ureztaketako lur bihurtu eta ureztaketak hobetu aurreko ikerlan eta azterlanak egiteko jarduketak, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak finantzatuak, gai hauen ingurukoak:

a) Lur ureztagarriak hautatzea.

b) Urezta litezkeen eskualdeen gainean egin gabe dauden ikerlanen metodologia eta inbentarioa ezartzea.

c) Ureztalur bihurturiko eskualdeen diagnostikoa eta segimendua, metodologia eta etorkizuneko proiektuen kostuak hobetzeko.

d) Ureztatzaileen prestakuntza, ureztaketa teknikan eta ingurugiroko gaietan.

e) Ureztaketak nekazaritzak nekazaritzako elikagaien eta nekazaritzako energiaren industrien behar lukeen oinarritzko lotura lortzera bideraturiko azterlanak.

Nafarroako Kontseiluari buruzko Foru Legea

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 1999ko martxoaren 11n egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako Kontseiluari buruzko Foru Legea onetsi zuen.

Biltzarreko Erregelamenduko 143. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1999ko martxoaren 15ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteuguía

Nafarroako Kontseiluari buruzko Foru Legea

ZIOEN ADIERAZPENA

Gobernamenduaren jardunak, historian zehar, erakunde aholku-emaileen laguntza izan du Nafarroan. Horien artean aipagarriena Nafarroako Errege Kontseilu Gorena izan da, izan duen iraupena eta garrantziagatik. Gobernu lanetan aholkuak ematea zegokion eta errege botereak "sobrecarta" izeneko eskubidearen bidez emandako xedapenen legezkotasuna eta forutasuna begiratzea.

Foru Lege honen bidez, Nafarroako Foru Komunitateak Nafarroako Kontseilua eratzen du, Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 49.1.a) eta e) artikuluan bildutako foru araubidearen indarrez bere foru erakundeak eta Foru Komunitateko Administrazioa antolatzeke duen eskumen osoaz baliatuz. Nafarroako Foru Komunitateko organo aholku-emaile gorenak izanen da.

Bai Nafarroako autogobernuaren sendotzeak bai jendearen interes orokorra eta legezkotasun positiboa hurbiltasun handiagoz ezinbestez babestu beharrak, eta, horiez gain, legegintzari eta administrazioaren jarduerari hobekuntza juridiko eta tekniko handiagoa emateko komenentziak, egoki egiten dute Nafarroako foru erakundearen eta administrazio publikoaren organo aholku-emaile gorenak Nafarroako Foru Komunitatearen esparruan sortzea.

Indarra duen arauteriak eta Konstituzioaren jurisprudentziak, zeinen indarrez autonomi erkidegoek eta, hortaz, Nafarroako Foru Komunitateak beren organo aholku-emaile gorenak eratzeko eskubidea baitute, Nafarroak arlo horretan dituen eskubide historikoak babesten dituzte.

Nafarroako Kontseiluaren eraketa, beraz, justifikatuta dago, erabat; izan ere, foru erakundearen eskema hobetuko du, Estatuko Kontseiluaren partehartzea beharrezkoa izanen ez delako, eta Foru Komunitatearen autogobernu maila goratuko.

Nafarroako Kontseilua organo aholku-emaile gisa eratu da, organo erabakitzaileetatik aparte. Autonomia organiko eta funtzionala izanen du eta eskumen esparru berariazkoa emanen zaio. Kideen araubideak beren kualifikazio tekniko zorrotza bermatuko du eta, halaber, horien neutraltasuna eta inpartzialtasuna.

LEHEN KAPITULUA Xedapen Orokorrak

1. artikulua. Izaera.

1. Nafarroako Foru Komunitateko organo aholku-emaile gorena da Nafarroako Kontseilua.

2. Bere eginkizunen jardunean, Nafarroako Kontseiluak Espainiako Konstituzioa, Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoa eta gainerako ordenamendu juridikoa betetzen dela begiratuko du. Kontseiluaren irizpenek ezin izanen dute abagune edo kome-nientziari buruzko baloraziorik eduki.

3. Nafarroako Kontseiluak Iruñean du bere egoitza.

2. artikulua. Autonomia.

Nafarroako Kontseiluak bere eginkizunak aurrera eramateko autonomia organiko eta funtzionala izanen du, bere objetibotasuna eta independentzia bermatuko badira.

3. artikulua. Irizpenen izaera.

1. Kontseiluari aholkua eskatzea nahitaezkoa izanen da Lege honetan edo beste batzuetan ezartzen diren kasuetan, eta gainerakoetan aukurakoa izanen da.

2. Irizpenak ez dira lotesleak izanen, lege bidez horrelakoak izatea ezartzen den kasuetan izan ezik.

II. KAPITULUA Osaketa

4. artikulua. Kideak.

1. Nafarroako Gobernuako Lehendakariak izendatutako zazpi kidek osatuko dute Kontseilua; nafartasun politikoa eta gaitasun eta ospe aitortua duten legelarien artean hautatuko dira: bost Nafarroako Parlamentuak proposatuko ditu, bere kideen gehiengo osoarekin hautatu ondoren; gainerako biak Nafarroako Gobernuak proposatuko ditu.

2. Nafarroako Kontseiluko kideak sei urteko eperako izendatuko dira eta berriro hautatuak izaten ahalko dira.

3. Kontseilukideak, beren karguan dihardute-nean, independenteak izanen dira, eta ez dira hortik kentzen ahalko.

5. artikulua. Karguaz jabetzea.

Izendatu eta hurrengo hogeita hamar egun naturalen barruan jabetuko dira karguaz kontseilukideak. Nafarroako Foru Araubidea beti errespetatzea, Konstituzioari eta legeei men egitea eta

beraien karguari dagozkien betebeharrak zintzo betetzea zin egin edo hitz emanen dute.

6. artikulua. Osoko Bilkura eta Batzorde Iraunkorra.

1. Nafarroako Kontseiluak Osoko Bilkuran eta Batzorde Iraunkorrean jardunen du.

2. Nafarroako Kontseiluko kide guztiek osatuko dute Osoko Bilkura.

3. Kontseiluburuak eta Osoko Bilkurak izendaturiko hiru kidek –horietako batek hartuko du Kontseiluko idazkaritza– osatuko dute Batzorde Iraunkorra.

Kontseiluburutza eta idazkaritzatik kanpoko beste bi kideak Batzorde Iraunkorrean sartuko dira, Kontseiluko kide guztien artean egindako txanden arabera. Erregelamenduan zehaztuko da hori egiteko modua.

7. artikulua. Kontseiluburutza.

1. Kontseiluburua kontseilukideen artean hautatuko da, gehiengo osoaz eta isilpeko bozketaz, eta Nafarroako Gobernuako Lehendakariari proposatuko zaio haren izendapena.

2. Gehiengo osoa lortzen ez bada, beste bozketak bat egiten da. Horretan, boto gehien eskuratu duena aukeratuko dute. Berdinketarik gertatuz gero, beste bozketak bat egiten da, eta berriro berdin gertatzen bada, kontseilukiderik zaharrena izendatuko dute.

3. Kontseiluburuaren agintaldiak sei urte irauten du. Berriz ere hautatu ahal izanen dute, agintaldia bukatu ondoren.

4. Kontseiluburu kargua bete gabe badago, edo kontseiluburu kanpoan edo eri dagoenean, haren ordezkariak beste kiderik antzinakoen arituko da -edo, halakorik ezean, zaharrena-, beste bat aukeratu edo ordezkapenaren zergatia bukatu arte.

8. artikulua. Kontseiluburutzaren eginkizunak.

Kontseilukide izateagatik dagozkion eginkizunak gain, hurrengoak ditu bere Kontseiluburutzak:

a) Nafarroako Kontseiluaren ordezkariak.

b) Kontseiluko bileretarako deia egitea, eta bileretako buru eta zuzendari izatea.

c) Gaiak kontseilukideen artean banatzea, ponentzia egin dezaten.

d) Kontseilutik kanpoko adituak izendatu eta horiei txostenak agintzea, beharrezkotzat jotzen denean.

e) Kontseiluaren gastu-espeditenteak baimentzea, Idazkaritzak izapidatu aurretik.

f) Erregelamendu organikoak finkatzen dituen gainerako eginkizunak.

9. artikulua. Idazkaritza.

1. Kontseiluko idazkaria kontseilukideen artetik hautatuko da, kontseiluburu hautatzeko prozedura bera erabilita, salbuespen batekin: berdinketa gertatuz gero, gazteena hautatuko da.

2. Idazkari kargua bete gabe badago, edo idazkaria kanpoan edo eri dagoenean, haren ordezkiderik gazteena arituko da, beste bat aukeratu edo ordezkapenaren zergatia bukatu arte.

10. artikulua. Idazkaritzaren eginkizunak.

Kontseilukide izateagatik dagozkion eginkizunenez gain, hurrengoak ditu bere Idazkaritzak:

a) Kontseiluko langileen nagusia izatea.

b) Kontseiluko bilkuretarako dokumentazioa aztertu eta prestatzea.

c) Kontseiluko bilkuren akta egitea.

d) Kontseiluaren egiaztatze- eta jakinarazpen-organoa izatea.

e) Erregelamendu organikoak finkatzen dituen gainerako eginkizunak.

11. artikulua. Kargu uztea.

1. Kontseilukideek honako egoera hauetan utziko dute kargua:

a) Uko egitea.

b) Kidea hiltzea.

c) Kargualdia amaitzea.

d) Gertatzezko bateraezintasuna.

e) Eginkizunetan akats larria egitea.

f) Doluzko delituagatik zigorra izatea, epai irmoaren ondoriozkoa.

g) Ezintasuna, epaileen erabaki irmoaren bidez deklaratu.

h) Nafartasun politikoa galtzea.

2. Kargu uztea Nafarroako Gobernuak Lehendakariaren Foru Dekretuaren bidez aginduko da. Aurreko idazatik d) eta e) letretan aurreikusitako kasuetan, hauexek beharko dira: espeditentea, interesatuari entzunaldia eskainiz, Kontseiluaren txostena, eta kontseiluburuaren proposamena.

a), c) eta h) letretako kasuetan, kontseilukideek beren eginkizunetan jardunen dute, ordezkoa izendatu eta karguaz jabetu arte.

3. Kargualdia amaitu aurretik sortzen diren postu hutsak kasuan kasuko kidearen kargualdia amaitu arte beteko dira, 4. artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

12. artikulua. Funtziogabetzea.

Nafarroako Gobernuak, Kontseiluaren arioz eta haren iritzia entzun ondoren, kontseilukideak funtziogabetu ahalko ditu, 11.1. artikuluko d) et e) letretan kargua uzteko egoerei buruzko ebazpena emateko behar den ezinbesteko denborarako, eta, halaber, prozedura penala gertatzen den kasuetan.

13. artikulua. Betebeharrak.

Nafarroako Kontseiluko kideak beharturik daude joratu beharreko gaiak erabakitzeko bilkuretara normaltasunez joatera, eta deitzen zaien gainerakoetara ere, eskatzen zaizkien azterketa, ponentzia eta lanak -beren karguari dagozkionak- egitera eta jarduketa eta erabakiak isilpean gordeztera.

14. artikulua. Bateraezintasunak.

Indarra duten beste arauak aplikatuz dagozkien bateraezintasunez gain, Nafarroako Kontseiluko kide izatea kargu hauekin bateraezina izanen da.

a) Nafarroako Gobernuak kidea.

b) Europako Batasuneko, Estatuko edo autonomi erkidego zein toki entitate bateko erakunde-erakunde kargu hautetsia izatea.

c) Alderdi politiko, sindikatu edo enpresarioen elkarte bateko edozein zuzendaritza-kargu.

d) Fiskal edo epaileen karrerako jarduneko kidea.

e) Obra edo zerbitzu publikoen emakidadun edo kontratista diren enpresetako zuzendaritzako edozein kargu.

15. artikulua. Ordainsariak.

1. Kontseilukideek Kontseiluko lan bilkuretara joategatik erregelamenduz ezartzen diren mantenu-sari eta ordainsariak jasotzeko eskubidea izanen dute.

2. Gainera, kontseilukide guztiek txosten eta irizpenen egile izateagatik erregelamenduz ezartzen diren ordainsariak jasotzeko eskubidea izanen dute.

3. Aurreko bi zenbakietan ezartzen diren ordainsariak lanetan parte hartzen duten adituek ere jasoko dituzte, 25. artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

III. KAPITULUA Eskumenak

16. artikulua. Kontseiluaren Osoko Bilkuraren irizpena.

1. Nahitaez, afera hauetan eskatu beharko da Nafarroako Kontseiluaren Osoko Bilkuraren aholkua:

a) Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoa aldatzeko.

b) Foru legeen aurreproiektuak edo administrazio-xedapenen proiektuak, baldin eta Nafarroako Kontseiluaren antolamendua, eskumena edo funtzionamendua ukitzen badute.

c) Foru dekretu legegileetarako proiektuak.

d) Konstituziokontarakotasun errekurtsioetan eta Konstituzio Auzitegiaren aurreko eskumen-gatazketan.

e) Beraien aplikazioa Hitzarmen Ekonomikotik erakarri duten erregelamenduen edo administrazio-xedapenen proiektuak.

f) Estatuarekiko, autonomia-erkidegoekiko eta administrazio publikoekiko hitzarmen eta itunak, baldin eta Foru Komunitatea horien parte bada, eta baita hitzarmen edo itunak ulertzean sor litezkeen zalantza eta ezadostasunak.

g) Legeak hala aginduta, Nafarroako Kontseiluaren Osoko Bilkurak nahitaez irizpena eman behar duen beste edozein afera; halaber, afera Batzorde Iraunkorraren eskumenpekoa izanda ere, gaiaren garrantziagatik Osoko Bilkurak bere gain hartzen duenean, kontseiluburuak edo Batzorde Iraunkorrek hala proposatuta.

Era berean, Osoko Bilkura arduratuko da Batzorde Iraunkorraren eskumenpeko gaiez, berdinketa gertatuz gero.

2. Hurrengo aferetan, besteak beste, eskatu ahalko zaio aholkua Nafarroako Kontseiluaren Osoko Bilkurari:

a) Foru legeen aurreproiektuak, Nafarroako Gobernuak hala eskatzen duenean bere lehendakariaren bidez.

b) Foru legeen proiektu eta proposamenak, Nafarroako Parlamentuak hala galdatzen duenean bere lehendakariaren bidez, Mahaiaren, bi

Talde Parlamentarioen edo Foru Parlamentarioen bosten baten eskariz.

17. artikulua. Nafarroako Kontseiluaren Batzorde Iraunkorraren irizpena.

1. Nahitaez, afera hauetan eskatu beharko da Nafarroako Kontseiluaren Batzorde Iraunkorraren aholkua:

a) Legeak betearazteko ematen diren erregelamenduen edo xedapen orokorren proiektuak, baita horien aldaketak ere.

b) Foru Komunitateko Administrazioaren esku-bide ekonomikoei buruzko elkar-aditzeak -judiziotzakoak zein judiziotik kanpokoak- eta aipatu eskubideei buruz sor daitezkeen gatazkek arbitrajepean jartzea, beti ere eztabaidagaia berrogeita hamar milioi pezeta baino gehiago bada. Edonola ere, kontsulta ez da nahitaezkoa izanen eskubide horiek ukitzen dituzten itun edo hitzarmenetan, prozedura konkurtsalen ondorioz sortu direnean, hain zuzen Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko Foru Legearen 15. artikulua 2. idazatik bigarren lerroaldean aipatzen direnak.

c) Berrikuspen-errekurtsio administratiboak.

d) Foru Komunitateko Administrazioak izapidaturiko espedienteak, legeak derrigorrez eskatzen badu organismo aholku-emaile baten irizpena, eta espedienteak hurrengo gaiak ukitzen baditu, besteak beste:

– Kalte-galerak ordaintzeko eskariak, hogeit milaioi pezetatik goitikoak badira.

– Administrazioak bere kabuz berraztertzea administrazio-egintzak.

– Hirigintza-planeamenduko tresnak aldatzea, aldaketaren xedea berdeguneen edo espazio libreen bestelako zonifikazioa edo erabilera bada.

– Udal dermioak aldatzeko espedienteak.

– Administrazio-kontratu edo -hitzarmenen interpretazio, deuseztasuna edo iraungipena, kontratista aurka agertzen denean;

– Kontzesio eta kontratuen aldaketak, horien zenbatekoa, dela bakarka dela osorik hartuta, kontratuaren esleipen prezioaren %20tik gorakoa denean eta kontratuaren esleipen prezioa 1.000.000.000 pezetakoa edo handiagoa denean.

e) Legearen arabera, Nafarroako Kontseiluaren nahitaezko irizpena behar duten gainerako gaiak, horien gaineko eskumena Osoko Bilkurari ez doakionean.

2. Berdinketarik gertatuz gero, Osoko Bilkuraren eskumenean utziko du afera Batzorde Iraun-

korrak. Era berean, Batzorde Iraunkorrek Osoko Bilkurari eska diezaiokete txostenak emateko arduraregana dezala, Nafarroako Kontseiluaren Osoko Bilkurak irizpena eman behar dien aferak badira, duten garrantzia dela-eta.

18. artikulua. Beste irizpen batzuk.

1. Hurrengo aferetan ere emanen du irizpena Nafarroako Kontseiluak: Nafarroako Gobernuak bere Lehendakariaren bidez helarazten dizkionetan; edo Nafarroako Parlamentuak bere Lehendakariaren bidez helarazten dizkionetan, Mahaiaren, bi Talde Parlamentarioen edo Foru Parlamentarioen bosten baten eskariz.

2. Nafarroako Kontseiluaren Osoko Bilkurak erabakiko du, aholkua eskatu zaion aferaren garrantzia edo eragina kontuan hartuta, irizpena Osoko Bilkurak edo Batzorde Iraunkorrek eginen duen.

IV. KAPITULUA
Funtzionamendua

19. artikulua. Irizpena eskatzea.

1. Nafarroako Gobernuko Lehendakariari eta Nafarroako Parlamentuko Lehendakariari dagokie Nafarroako Kontseiluaren irizpena eskatzea.

2. Nafarroako Gobernuko kontseilariak ere, zuzenean eska diezaiokete Nafarroako Kontseiluari nahitaezko txostena egin dezala beraien eskumeneko aferei buruz; hain zuzen, 17. artikuluko d) letrak aipatzen dituen horiei buruz.

3. Nafarroako toki entitateetako buruei eta beste korporazio, erakunde edo entitate publikoen ordezkariak berenganatua duten organoei dagokie Nafarroako Kontseiluaren irizpena eskatzea, indarra duen legeriaren arabera nahitaezkoa den kasuetan. Eskaera hori Nafarroako Gobernuko Lehendakariaren bitartez eginen da.

20. artikulua. Abstentzioa eta arbuiatzea edo ezestea.

1. Kontseilukideek zuzeneko interes objektibo zein subjektiboa duten gaietan parte hartzeari uko egin beharko diote, administrazio prozedurari buruz indarra duen araudiarekin bat etorritik.

2. Kontseilukideak ezesteko eskaria egin dezake alde interesatuak, administrazio prozedurari buruz indarra duen legediarekin bat etorritik.

21. artikulua. Erabakiak hartzea.

1. Kontseiluaren irizpen eta erabakiak baliozkoak izateko, kontseiluburuak eta idazkariak, edo lege haien ordezkariak direnek, bilkuran egon behar dute, eta horiekin batera, gehiengo osoa

osatzeko behar diren hainbat kontseilukidek, gutxienez.

2. Erabakiak hartuko dira bertarutzen diren kideen gehiengoaren aldeko botoaz.

Osoko Bilkuran berdinketa izanez gero, kontseiluburuaren kalitatezko botoa erabakigarria izanen da. Berdinketa Batzorde Iraunkorrean gertatzen bada, Osoko Bilkurak erabakiko du afera.

3. Gehiengoak hartzen duen erabakiaren aurkako iritzia dutenek idatziz azaldu ahalko dute beren boto partikularra, arrazoi eta guzti. Boto partikularra irizpenari erantsiko zaio.

22. artikulua. Epea.

Nafarroako Kontseiluak berrogeita bost egun naturaleko epean eman beharko ditu, eskuarki, eskatzen zaizkion irizpenak.

Organo eskatzaileak espedientearen premia justifikatzen duen kasuetan, epea hamabost egun naturalera arte jaitsi ahalko da.

Epe orokorra gehienez hogeita hamar egun natural luzatu ahalko du Kontseiluak, salbuespen kasuetan.

Nafarroako Kontseiluak irizpenik ematen ez badu esandako epean, izapidea beteta dagoela ulertuko da, alegia, eragozpenik ez dagoela aholkua eskatu zaion gaiari buruz.

23. artikulua. Dokumentazioa.

Kontsulta eskaerarekin batera, aztertuko den aferaren inguruko dokumentazio osoa aurkeztu beharko da.

Kontseiluak uste badu espedientea osorik ez dagoela, kontseiluburuaren bitartez, eskatu ahalko du behar den dokumentazio osagarria ekar dezaten. Kasu horretan, irizpena emateko aurreko artikuluan ezarri epea eten eginen da, behin baino ez, betiere.

24. artikulua. Alde interesatuei entzutea.

Kontseiluaren aztergai jartzen diren aferetan interesa duten aldeei entzunaldia eman ahal zaie

Kontseiluburuak erabakiko du entzunaldia egi-tea, interesdunek eskatuta edo bere arioz. Edonola ere, entzunaldia emanen zaio Administrazio Publikoari, zuzeneko interesa duenean eta hala eskatzen duenean.

25. artikulua. Adituen partehartzea.

Kontseiluak aztergai jartzen zaizkion aferetan gaitasun tekniko nabarmena duten erakunde, entitate edo adituen partehartzea eskatu ahalko du, txostena egin dezaten. Kasu horietan, Kontseilua-

ren azken irizpenean adierazi beharko da zehazki zer eskatu zaien eta txosten hura irizpenarekin batera aurkeztuko da.

26. artikulua. Oroit-idazkia

Kontseiluak urtero oroit-idazkia prestatu eta Nafarroako Parlamentuari eta Nafarroako Gobernuari igorriko dio. Bertan, aurreko ekitaldiko jarduna azaldu eta jarduketara juridiko-administratiboa hobetzeko egoki juzgatzen dituen iradokizunak aurkeztuko ditu.

V. KAPITULUA

Araubide juridikoa, ekonomia- eta finantza-araubidea eta langileak

27. artikulua. Araubide juridikoa.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari ezar dakioken araubide juridiko bera ezarriko zaio Nafarroako Kontseiluari, kontratazioan, erantzukizunean eta administrazio- edo barne-araubideari buruzko gainerakoetan.

2. Nafarroako Kontseiluaren Osoko Bilkurari dagokio Kontseiluaren antolamendu- eta funtzionamendu-erregelamenduaren proposamena onestea. Aldiz, Nafarroako Gobernuari dagokio erregelamendu hori onestea, Foru Lege honetako printzipioekin bat etorritik.

28. artikulua. Ekonomia- eta finantza-araubidea.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari ezar dakioken ekonomia- eta finantza-araubidearen menpe egonen da Nafarroako Kontseilua.

2. Nafarroako Kontseiluak bere aurrekontuaren aurreproiektua prestatuko du, Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektuan sar dezaten, programa independente gisa.

29. artikulua. Langileak.

Nafarroako Kontseiluaren zerbitzuko langileak merezimendu eta gaitasunaren printzipioen arabera hautatuko dira. Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileei ezar dakieken legedia bera ezarriko zaie.

Xedapen gehigarriak

Lehena. 1. Foru Lege honek indarra hartu eta hurrengo hilabetearen barruan, Nafarroako Parlamentuak eta Nafarroako Gobernuak Nafarroako Gobernuko Lehendakariari bidaliko dizkiote dagozkien Nafarroako Kontseiluko kideak izendatzeko proposamena.

2. Kontseilukideak postuaz jabetu eta hurrengo hilabetearen barruan eratuko da Kontseilua.

Bigarrena. Nafarroako Kontseilua langileez eta gauza-baliabideez hornitzen den bitartean, Nafarroako Gobernuak jarriko ditu Kontseiluak behar bezala funtzionatzeko baliabide egokiak.

Hirugarrena. Nafarroako Kontseiluaren funtzionamendurako behar diren kredituak prestatuko ditu Nafarroako Gobernuak Nafarroako Kontseiluak bere programa izan arte Nafarroako Aurrekontu Orokorretan.

Laugarrena. Nafarroako Kontseilua eratu eta hilabeteko epearen barruan, Osoko Bilkurak antolamendu- eta funtzionamendu-erregelamenduaren proposamena onetsi eta Nafarroako Gobernuari bidaliko dio, onetsi dezan.

Xedapen iragankorrak

Lehena. Foru Lege honek indarra hartu aurretik Estatuko Kontseilura nahitaezko irizpena jasotzeko igorriak diren espedienteen izapidatzea hasitako bideari segituz egingen da.

Bigarrena. Legeen arabera nahitaezko irizpena Estatuko Kontseilutik hartu beharra izanik, Foru Lege honek indarra hartzen duenerako hasiak diren espedienteak Nafarroako Kontseiluari igorriko zaizkio.

Azken Xedapenak

Lehena. Ahalmena ematen zaio Nafarroako Gobernuari Foru Lege hau garatu eta betetzeko behar diren arauak eman ditzan.

Bigarrena. Foru Lege honek 1999ko urriaren 1ean hartuko du indarra.

Nafarroako Errege Bardea Parke Natural deklaratzeko Foru Lege proiektua

LURRALDEAREN ANTOLAMENDU, ETXEBIZITZA ETA INGURUGIRO BATZORDEAK ONETSITAKO IRIZPENA

Biltzarreko Erregelamenduko 136.6 artikuluan ezarritakoa betez, Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Batzordeak Nafarroako Errege Bardea Parke Natural deklaratzeko Foru Lege proiektuari buruz eman duen Irizpena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agintzen da. Proiektu hori 1999ko urtarrilaren 1eko 3 zk.ko Biltzarreko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Irizpen horri buruz, Osoko Bilkuran, emendakin hauek defendatzen ahalko dira:

– 1, 8, 18 eta 24 bis zenbakiko emendakinak eta 1 eta 2, 9 eta 10, “in voce” emendakinak, «Ezker Abertzalea» Parlamentuko Taldeak aurkeztuak.

– 25 zenbakiko emendakinak, «Askotarikoa» Parlamentuko Taldeko Fermín Ciáurriz Gómez jaunak aurkeztua.

– 2, 9, 11, 12, 13, 14, 15, 16, 19, 27 eta 29 zenbakiko emendakinak, «Askotarikoa» Parlamentuko Taldeko Martín Landa Marco jaunak aurkeztuak.

Emendakin horiek 1999ko martxoaren 4ko 17 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren.

“In voce” emendakinak hauek dira:

– 1 zenbakiko “in voce” emendakina:

“Lehenengo artikuluari gehikuntza egiteko emendakina

‘...Nafarroako Errege Bardeek hartzen duten lurralde osoa...’ren ondoren honako testu hau gehitu: ‘...bertan Vedado de Eguarasi dagokiona sartuta dagoela, zeina 31. Natur Erreserba baita, Valtierraiko udal dermioan kokaturikoa eta 1202 hektareakoa–...’.

– 2 zenbakiko “in voce” emendakina:

“1. artikulua aldatzeko emendakina:

Adieraziriko muga geografikoetan Vedado de Eguarasi –zeina 31. Natur Erreserba baita– dagokiona sar dadin beharrezko diren aldaketak egin bitez testuan.”

– 9 zenbakiko “in voce” emendakina:

“Zioen Azalpenari gehikuntza egiteko emendakina:

Zioen Azalpenari bukaeran lerroalde bat gehitzea. Honela dio:

‘Nafarroako Foru Komunitateak, bere Parlamentuaren bitartez, behin eta berriro adierazi izan du borondate irmoa duela Tiro Poligonoa erabiltzeko Armada espainiarrarekin sinaturiko errentamendu-kontratua 2000. urtean luza ez dadin, eta poligono hori desegin dadin. Horrek, besterik gabe, justifikatu egiten du Foru Lege honetan poligono horren gaur egungo kokagunearen erabilera aurreikustea, Parke Naturalaren osagai gisa.’

– 10 zenbakiko “in voce” emendakina:

“Zioen azalpeneko azken lerroaldea kentzeko emendakina.”

Iruñean, 1999ko martxoaren 16an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

IRIZPENA

Nafarroako Errege Bardea Parke Natural deklaratzeko Foru Lege proiektua

ZIOEN AZALPENA

Nafarroako Naturguneei buruzko ekainaren 17ko 9/1996 Foru Legeak lege esparru propioa definitu zuen babesteko moduko balio bereziak dituzten Nafarroako eremuak babestu, kontserbatu eta hobetzeko. Foru Lege horrek hainbat aurreikuspen egiten zituen gai horren gainean, Espainiako legeetatik hartuta, eta gaiari buruzko legedi sektorial korapilatsua egituratu zuen.

Ekosistema bereziki interesgarriak dituzten naturgune batzuk aipatzeko, gizonaren eskuharitzeak gutxi aldatu dituen lurralde eremuak daude, izan ere, eremu horietako paisajeak, ekosistemak eta formazio geomorfologikoak balio arraroa dute, eta arreta berezia eman behar zaio horien kontserbazioari.

Errege Bardeak Nafarroako Foru Komunitateko hegomendebaldeko lurralde zabal bat dira; euri

gutxi eta haiek uholde gisakoak izaten dituzte; uda beroak eta negu aski hotzak; horren ondorioz, ekaitzek higadura handia sortzen dute, eta ez zoruak ez landareek ez diote ur horri etekin handirik ateratzen.

Geomorfologiaz, Errege Bardeak Ebroko beheraguneak osatzen duen unitate geologikoaren iparreko ertzean daude. Beheragune horrek tertziario kontinentaleko eta kuaternarioko materialak ditu osagai. Pirinioak eta Mendikate Iberikoak, eta bai beste batzuek ere, bultza egiten diete Errege Bardeei eta bertako deformazio tipikoak sortzen dituzte: toles monoklinalak, oso buzamendu leunekoak.

Sustratu geologikoa gatz eta kisu handikoa baita eta bertako klima ere oso lehorra, gesal lur asko egoten dira Errege Bardeetako zoruan. Eta gainera, euri urak zoruan iragazi eta zoruaren higadura mekanikoa sortzen du: ordoki eta erreka ikusgarri ederrak, landaretza gutxikoak eta eragin handikoak.

Errege Bardeetako landaretza, estepetako eta Mediterranioko landaretza da. Osagai mediterranioko ezagun da, ontina eta sisalloa ausarki dagoe-lako, eta espartzudia ere bai. Landaretza hori, jakina, inguruneke kondizioek eta giza eskuhartzeak sortua da, baina kasurik hoberenean sastraka altu edo antzeko komunitate subserialen bat bilaka liteke. Errege Bardeetako flora eta landaretzaren interes botanikoa Ebroko Beheragunearen berezitasun klimatikotik heldu da; horregatik, Habitat-Errolda Nazionalen ere –Habitategi buruzko maiatzaren 21eko 92/43 EEE jarraibidearen arrimuan sortua– sartu dira Errege Bardeak.

Faunak ere ale interesgarri asko ditu: anitz arrain, anfibio eta narrasti espezie; baina hegaztiak dira agian aipagarrienak, Nafarroan soilik ez baina Europan ere garrantzi larria ematen baitiote Errege Bardeei: aipa dezagun, adibidez, saizuria. Harrapari populazioak, oro har, handiak dira, eta berriki giza eskuhartzearen mehatxua sufritzen hasi dira; horregatik, zenbait jarduera arriskugarri direla medio, ezinbestekoa da berehala arautzea. Estepako hegaztiak -basoilarra, basoiloa, eperzuria, larreoiloa- komunitate handia osatzen dute Errege Bardeetan eta haiek kontserbatzeko ezinbestekoa da nekazaritzako inguramenari buruzko neurriak hartzea, gaur egungo labore estentsiboreen erregimena faboratzeko.

Aurrekoaz gain, esan beharra dago Errege Bardeen eskualde osoaren egoera egokia izan dadin komenigarria dela bertako eremu batean –tiro poligonorako gordetakoan, hain zuzenburutzen ari den erabilera eta jarduera berrazter-

tzea. Nahi hori hainbat aldiz onetsi izan du Nafarroako Parlamentuak. Horregatik, aipaturiko erabilera arautzen duten indarreko harreman juridikoak bukatu ondoren, eta Errege Bardeen ingurugirogarapen osoa eta Foru Lege honen betetze osoa lortzearren, bidezkoa da Administrazio Publiko eskudunek beharrezkoak diren neurri eta ekimen guztiak har ditzatela aipaturiko gaur egungo egoera gainditzeko. Hori guztia, eskualde horrekin zerkusia duten balizko ingurugiro-kalteen azterketa egin ondoren.

Inguramena Errege Bardeetan babesteko lege-erregimena bilakatuz joan da Lurraldea Babestu eta Erabiltzeari buruzko apirilaren 10eko 6/1987 Foru Legeak lehenbiziko natur erreserbak deklaratu zituenetik (Rincón del Bu, Caídas de la Negra) harik eta natur erreserbak mugatu ziren arte. Berrikiago, kasuko toki entitate eskudunak, hau da, Errege Bardeetako Komunitateak sustatuta Natur Baliabideak Antolatzeke Plana onetsi ondoren (irailaren 7ko 266/1998 Foru Dekretua). Elkarte tradizional horrena lehenbiziko ekimena izan da Nafarroan natur baliabideak antolatzeke plan bat itxuratzeko. Araudi horretan Errege Bardeak Parke Natural deklaratzeko dira, delako Plana itxuratu eta onesteko tramitea behin egin ondoren, naturguneen gaineko aipatu Foru Legearen 21.1. artikulua araberara.

Errege Bardeetako parke naturala deklaratzeko jotzen da figura juridikorik egokiena, aurretik zeuden baloreak eta ekosistemak zaintzeko ez ezik, plangintza eta kudeaketa osoak eta koherenteak bermatzeko ere, egungo eta etorkizuneko eskakizunak bermatzearren, garapen eutsigarriaren ikuspuntutik. Parke naturala da, halaber, udal gozamenkideek, Junta Nagusiaren eta ordenantzen bidez, azken hamarkadetan baliatu dituzten erabilera- eta kudeaketa-formulak hobekien zaintzen duen botere publikoen deklarazioa. Era berean, ohiko sektoreek eta artisauek ekoitzi bertako produktuen balio ekonomiko diferentziala bultzatu eta handitu egiten ditu parke naturalak, eta,aldi berean, kanpoko baliabide ekonomikoak erakartzen ditu Bardeara eta handik hurbilen dauden hiri-guneetara, eskualdeko gizarte- eta ekonomia-garapenaren mesederako.

Nafarroako ubidearen interes orokorra Estatu-ko lege batean eta Nafarroako Gorteen beste Foru Lege batean deklaraturik dago, eta horrek zilegi egiten du ubidea hemen ere aipatzea; izan ere, parkearen lurraldearen baitan eraiki daiteke, zati txikia hartuko badu ere, edota lurralde hori zeharkatu. Hortaz, parkea sortzeko helburuekin bateragarria bada ere, ubidea ezin izanen da parkeko gune jakin batzuetan sartu, natur erreserba-

tzat edo hegaztien babesgune berezizat jotakoe-tan, alegia.

Entitate horrek berak Parke berriaren kudeake-ta berari egoztea eskatu du. Kasurako den arau-diak ez du aukera hori ezintzen, eta gainera harta-ra hurbildu egiten zaizkio antolatze eta funtzionamendu lanak lurraldez ere hurbilen bizi denari, nahiz eta beste zenbait erakundek parte har dezaketen kudeaketan.

1. artikulua. Parke Natural deklaritzen da Nafarroako Errege Bardeek hartzen duten lurralde osoa. Babes figura horretatik kanpo geratzen dira honako erabilera bereziko eremuok: Hondo de Espartosa (272 ha.), Bandera (43 ha.), Cinco Villas (13 ha.) eta tiro poligonoa (2.244 ha.).

Parke Naturalaren mugak, 1998ko edizioiko Nafarroako 1:5.000 Mapa Topografikoaren arabe-ra, honakoak dira:

Iparraldetik: X 632138.19; Y 4383664.41 UTM koordenatu puntutik hasten da, Tres Mugas esaten zaion parajeon, zeinean bat egiten baitute Sadabako (Zaragoza), Zarrakatzeluko eta Errege Bardeetako mugapeek. Handik ipar-mendebale-rantz segitzen du, Zarrakatzeluko muga-lerroare-kin bat, X 628219.34, Y 4685776.48 UTM koorde-natu punturaino; bertan La Quemada deitu parajea jotzen du, Mélidako udalerrian, X 626308.91; Y 4687304.79 UTM koordenatu pun-turaino, non berriz batzen baita Zarrakatzeluko udalerriarekin. Handik ipar aldera segitzen du X 623587.67; Y 4691203.31 UTM koordenatu pun-turaino, non Santacarako mugapearekin batzen baita, eta muga hori bera segitzen du X 620575.59; Y 4691133.04 UTM koordenatu pun-turaino, non Melidako mugapearekin batzen baita. Handik hego-ekialdera segitzen du Murillo el Cuendeko mugapea jo arte, X 616204.63; Y 4682930.64 UTM koordenatu puntuan, eta handik mugape horrekin bat segitzen du X 616204.63; Y 4682930.64 UTM koordenatu punturaino, zeinean Caparrosoko mugapea hasten baita. Mugape horrekin bat segitzen du X 608894.11; Y 4682139.14 UTM koordenatu punturaino.

Hegoaldetik: Tuterako mugan hasten da, X 618641.62; Y 4665961.77 UTM koordenatu pun-tuan, eta Tuterako mugarekin bat segitzen du X622437.05; Y 4659994.93 UTM koordenatu pun-turaino, non Cabanillasko mugapearekin batzen baita. Muga horrekin bat segitzen du hego ekial-dera X 625825.38; Y 4658470.50 UTM koorde-natu punturaino, non Fustiñanako mugapearekin batzen baita. Herri horren mugarekin bat segitzen du. X 626490.62; Y 4659400.15 UTM koordenatu puntuan muga hori utzi eta hegoaldera zuzen

segitzen du, X 626488.91; Y 4659367.96 UTM koordenatu punturaino. Handik ekialdera segitzen du 475 metroko goiera lerroarekin bat. X 625910.22; Y 4659618.11 UTM koordenatu pun-tuan lerro hori utzi eta handik zuzen X 625902.75; Y 4659924.25 UTM koordenatu puntura iristen da. Bertan 495 metroko goiera lerroa hartu eta iparre-ra segitzen du X 626067.03; Y 46603323.74 UTM koordenatu punturaino, eta handik zuzen X 626127.31; Y 4660283.53 UTM koordenatu pun-tura iristen da. Han 500 metroko lerroa hartzen du ekialdera, X 626618.86; Y 4659959.38 UTM koor-denatu punturaino. Handik zuzen berriz lotzen zaio Errege Bardeen mugapeari X 626622.97; Y 4659931.8 UTM koordenatu puntuan, X 603325.96; Y 4651057.90 UTM koordenatu pun-turaino, non Buñuelgo mugapea hasten baita. Herri horren mugarekin bat hego-ekialdera segi-tzen du Zaragozako probintzia jo arte, X 634359.84; Y 4646748.08 UTM koordenatu pun-tuan.

Ekialdetik: Aragoiko erkidegoa du mugakide, hasi X 634359.84; Y 646748.08 UTM koordenatu puntutik harik eta X 632758.65; Y 4670562.15 UTM koordenatu punturaino, bertan muga hori utzi eta Cinco Villasko kanalarekin parez pareko korridore bat osatzen du, kanalaren hegitik 25 metro ekialdera, X 632840.55; Y 4671602.28 UTM koordenatu punturaino, non berriz lotzen baitzaio Aragoiko mugari Parkeko ipar muga jo arte X632138.19; Y 4683664.41 UTM koordenatu puntuan.

Mendebaldetik: X 608894.11; Y 4682139.14 UTM koordenatu puntuan hasten da. Handik 300 metroko goiera lerroa hartzen du ekialdera X 610391.53; Y 4681294.97 UTM koordenatu pun-turaino, han lerro hori utzi, hego aldera jiratu eta zuzen X 610492.13; Y 4679678.87 UTM koorde-natu punturaino. Han berriz hartzen du 300 metroko goiera lerroa mendebal aldera Villafrancako udalerria jo arte X 608851.17; Y 4680168.17 UTM koordenatu puntuan, eta muga horrekin bat segi-tzen du hego ekialdera X 610288.87; Y 4679603.13 UTM koordenatu punturaino, bertan Cadreitako udalerriarekin batzen baita eta herri horren mugarekin bat segitzen du Valtierrako uda-lerria jo arte X 611860.85; Y 4678727.97 UTM koordenatu puntuan. Valtierrako mugarekin bat hego ekialdera segitzen du Arguedaskoa jo arte X 615916.20; Y 4676001.19 UTM koordenatu pun-tuan; handik ipar ekialdera joaten da Vedado de Eguaras deitu parajera iritsi arte, Valtierrako mugapean, X 619637.32; Y 4677434.58 UTM koordenatu puntuan.

2. artikulua. 1. Errege Bardeetako Parkeak Natur Baliabideak Antolatzeko Plana izanen du araubide, Nafarroako Gobernuak behin betikoz irailaren 7ko 266/1988 Foru Dekretuaren bidez onetsi zuena, hain zuzen, eta ondorengo aldaketak, hala bada.

2. Nafarroako Ubidea, Errege Bardeako parke naturalaren deklarazioa justifikatzen duten helburuekin bateragarri denez, aipatu parke naturalaren lurralde-eremuan jar daiteke, edo eremu hori zeharka dezake, parkeko hurrengo aldeak salbu: natur erreserba, hezegune edo hegaztien babesgune berezizat jotakoak. Halaber, garapen eutsigarria sustatuko da, lurraldeko balio naturalen kontserbazioa eta ureztatutako nekazaritzaren aprobeixamendua uztartzeko.

3. artikulua. Parke Naturala kudeatzea Errege Bardeetako Komunitateari dagokio, eta berak izanen ditu indarra duen legediak Parke Naturala kudeaketa organoei esleitzen dizkien eskumen eta ahalmen guztiak.

4. artikulua. 1. Errege Bardeetako Batzorde Aholkuemailea sortzen da, kudeaketaren titularraren Komunitateari aholku emateko organoa, Nafarroako Gobernuaren eta Errege Bardeetako Komunitatearen arteko elkarlana bideratzeko, eta beste alde batetik Parke Naturalaren kudeaketan interesa duten agenteek parte hartu eta laguntza emateko organoa izan dadin.

1. bis. Batzorde Aholkuemaileari dagokio kudeaketaren titularrarentzat gutxienez ere honako gai eta puntu hauei buruzko txostenak prestatzea: Parke Naturalaren Erabilera eta Kudeaketarako Plan Gidaria eta berorren aldaketak, gainontzeko plan, azterlan eta proiektu berariazkoak, eta Parkearekin zerikusia daukaten urteroko jarduerak, sustapen- eta bultzada-programak.

2. Batzorde Aholkuemaileak hamabost kide izanen ditu:

a) Nafarroako Gobernuaren bost ordezkari: bat Toki Administrazioako Departamentuak izendatua, bat Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak izendatua, bat Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak izendatua, bat Industria, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuak izendatua eta bat Hezkuntza eta Kultura Departamentuak izendatua.

b) Errege Bardeetako Komunitateak lau ordezkari izanen ditu, bi Batzorde Iraunkorrak izendatutakoak eta bi teknikari, Komunitatearentzat beren lan profesionala egiten dutenak.

c) Errege Bardeetako Nekazarien Sindikatuko ordezkari bat.

d) Abeltzain Gremioen Batzordeko ordezkari bat.

e) Errege Bardeetako Arrantza eta Ehiztari Elkartearen ordezkari bat.

f) "Merindad de Tudela" ikerketa zentroaren ordezkari bat.

g) "Eder" partzuergo turistikoaren ordezkari bat.

h) Eta azkenik, inguramena defendatzeko elkarte edo erakundeen ordezkari bat. Nafarroako Ingurugiro Kontseiluan ordezkari duden ingurumen elkarte edo erakundeek izendutako dute ordezkari hori.

3. Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren ordezkaria arituko da Kontseilu Aholku-emailearen buru.

4. Kontseiluaren buruorde, Errege Bardeetako Komunitatearen ordezkarietako bat arituko da.

Xedapen gehigarriak

Lehena. Parke Natural izendatua izateko deklarazio honetatik eratorritako edukiak Errege Bardeetako Komunitatearen Ordenantzetan ez badira sartzen Natur Baliabideak Antolatzeko Planean adierazitako epean, Nafarroako Gobernuak egokiak diren neurriak hartuko ditu horiek aipaturiko Ordenantzetan sartuak izan daitezzen.

Bigarrena. Foru Lege honek indarra hartu eta gehienez ere urtebeteko epean eratu da Kontseilu Aholku-emailea, eta lehen bilera eginen du.

Hirugarrena. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak Vedado de Eguaras, Rincón del Bu eta Caídas de la Negra Natur Erreserbetan dagokion kudeaketa burutuko du, eta horretarako erabiliko dituen irizpideak aurreikuspenen arabera Errege Bardea Parke Naturala aplikatuko direnekin bateragarri izanen dira. Berdin jokatuko da Errege Bardea Parke Naturalarekin mugakide diren eta aurrerantzean deklaratu daitezkeen beste naturguneen kudeaketari dagokionean.

Azken xedapenak

Lehenbizikoa. Nafarroako Gobernuari ahalmena ematen zaio Foru Lege hau garatu eta betetzeko beharrezkoak diren xedapenak emateko.

Bigarrena. Foru Lege honek Nafarroako Aldizkari ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Foru Lege proiektua, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren fakultatiboentzako lanbide karrerako sistema arautzen duena

OSOKO BILKURAK BAZTERTUTAKO OSOKO EMENDAKINAK

Nafarroako Parlamentuak, 1999ko martxoaren 11n egindako Osoko Bilkuran, «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» eta «Socialistas del Parlamento de Navarra» Parlamentuko Taldeek Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren fakultatiboentzako lanbide karrerako sistema arautzen duen Foru Lege proiektuari aurkeztutako osoko emendakinak baztertzea erabaki zuen.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 130.5 artikuluan ezarritakoarekin bat, proiektu hori Osasun Batzordera igorri da.

Iruñean, 1999ko martxoaren 15ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Nafarroako Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko ekainaren 16ko 10/1998 Foru Legea aldatzeko Foru Legea, administrazioarekin kontratatu ahal izateko betekizunen arloko hainbat kontzepturi dagokiona

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 1999ko martxoaren 11n egindako Osoko Bilkuran, ondoko Foru Legea onetsi zuen: Nafarroako Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko ekainaren 16ko 10/1998 Foru Legea aldatzeko Foru Legea, administrazioarekin kontratatu ahal izateko betekizunen arloko hainbat kontzepturi dagokiona.

Biltzarreko Erregelamenduko 143. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1999ko martxoaren 15ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Nafarroako Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko ekainaren 16ko 10/1998 Foru Legea aldatzeko Foru Legea, administrazioarekin kontratatu ahal izateko betekizunen arloko hainbat kontzepturi dagokiona

Laneko segurtasun eta osasunaren zenbatekoan eta laneko arriskuen prebentziorako neurri-multzoan eragin garrantzitsua izateko helburua duten botere publikoen politikak eta jarduketek funtsezko osagai bilakatu behar dute haiek lan-merkatuari dagokionean burutzen duten jardueran.

Laneko istripuei buruzko datu eta estatistikak asaldagarriak dira, nahiz eta gaur egun lan-arriskuen arloan daukagun prebentziorako legedia Europako Batasunekoarekin parekagarria izan.

Horrela, 1997an 11.179 lan-istripu gertatum ziren Nafarroan. Kopuru horretatik, 26k heriotza eragin zuten; zera esan nahi du horrek: 1997an zehar Nafarroan lan-istripuen ondoriozko hildako bat izan zen 13,8 egunero.

Hala eta guztiz ere, berez dramatikoak diren kopuru horiek ez daude hobetze-bidean. 1998an zehar, eta abuztuaren 12ra bitartean, lan-istripu heriotz eragileen estatistika egunero 10,6 hildako bat izateraino iritsi zen.

Beraz, beharrezkoa da administrazioaren jarduketa irmoagoa izatea langileek osasunerako duten oinarritzko eskubidea babesteko, laneko segurtasun eta osasunaren eta lan-arriskuen prebentzioaren arloan dagoen araudia hobeto betez.

Ildo horretatik, Nafarroako Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko ekainaren 16ko 10/1998 Foru Lege berrian honako debeku hau jaso da: laneko segurtasun eta higienezko aurkako delituen ondoriozko epai irmoz kondenaturiko pertsonen administrazio publikoekin kontratatzeke ezarritakoa.

Gaur egun ere, behar-beharrezkoa da administrazioak indarreko legedia betetzeko exijentzi-mailak igotzea, eta gai honetan administrazio-kontratazioak zaintza-eginkizuna sendotu egin behar du legedia betetzeari dagokionean.

Azken batean, lege proposamen honetan ezartzen da, Administrazio Publikoekin kontratatu nahi duten pertsona natural edo juridikoek bete beharreko betekizun gisa, dokumentu bidez frogatu beharra Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legean agertzen diren laneko segurtasun eta osasunaren eta lan-arriskuen prebentzioaren arloko galdakizun eta betebeharrak betetzen direla.

Artikulu bakarra. Nafarroako Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko ekainaren 16ko 10/1998 Foru Legeko 67.2 artikulua e) letra aldatu egiten da. Hona nola geratuko den idatzita:

“e) Indarra duten xedapenek ezarritako hurrengo betebeharrak betetzen dituztela frogatzen dutenak: zergei buruzkoak, Gizarte Segurantzare-

kikoak, laneko segurtasun eta osasunekoak eta laneko arriskuei aurre hartzeoak.”

Azken xedapenak

Lehena. Nafarroako Gobernuari baimena ematen zaio Foru Lege hau garatzeko beharrez-

koak diren erregelamenduzko xedapenak eman ditzan.

Bigarrena. Foru Lege honek indarra hartuko du Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean.

Foru Legea, lanaldia 35 ordukoa izan dadin laguntzeko lan denbora banatzeko neurri publikoak ezartzeari buruzkoa

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 1999ko martxoaren 11n egindako Osoko Bilkuran, lanaldia 35 ordukoa izan dadin laguntzeko lan denbora banatzeko neurri publikoak ezartzeari buruzko Foru Legea onetsi zuen.

Biltzarreko Erregelamenduko 143. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1999ko martxoaren 15ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Foru Legea, lanaldia 35 ordukoa izan dadin laguntzeko eta lan denbora gutxitu eta berrantolatzeako neurri publikoak ezartzeari buruzkoa

Gaur egun, Europako herrialde guztietan ari dira lanaldiaren murriztea oinarri duten esperientziak egiten, hainbat aplikazio eredu eta tresna erabiliz, eta guzti hori enplegu politikaren barranean.

Horien artean, Frantziako eta Italiako Gobernuek bultzatutako lege ekimenak daude; horiei, dagokien aurrekontu-esleipenak ere egin zaizkie. Nahi dena da negoziazio prozesu orokorra bultzatu, lanaldia murriztu eta berrantolatzeako, horrela, lehentasunezko helburua lortu ahal izateko: lana sortzea.

Nafarroan dagoen langabezi tasa European dagoenaren antzekoa da, eta beharrezkoa da arazo gizartearentzat onargarri den mailara txikiagotzea, ondoren, enplegu bete lortzeko.

Urte hauetan Administrazio Publikoaren artean eta gizarte-eragile eta eragile ekonomikoen artean lortutako adostasuna dela medio, langabezia gutxitzeko jarduketak zehatzak egitea errazten duen giroa sortu da, eta horren isla izan dira

sektoreen arteko zenbait akordio eta enplegu plan.

Akordio horietan, erakunde sindakalek proposatu dute neurri multzo bat kontutan izatea eta horiek zehaztea; neurri horien artean daude emaitza positiboak izan dituzten politikei eustea eta baita neurri berriak hartzea ere, eta horien artean lanaldiaren murrizketa.

Esparru horretan garatu dira foru lege honetako artikulua. Foru lege honekin nahi izan dena da gizarte-eragile eta eragile ekonomikoen arteko akordioak osatu eta garatu; helburua da lege-tresna sortzea, lanaldia murriztuz enplegua handiagotzeko aukera horri buruzko negoziazio prozesuak irekitzen lagunduko duena.

Beraz, gure komunitatea politika berritzaileen aitzindari izatea da helburua; hemengo politikak European enpleguarekiko joerekin batera gara daitezela eta, halaber, gai izan daitezela ebaluatzeo lanaldia murrizteak, epe laburrean, enplegu berriak sortzeko duen eragina. Politika horiek praktikan jartzeko beharrezkoak diren baliabide ekonomikoak bideratuko dira.

1. artikulua. Foru Lege honen xedea da neurri publikoak ezartzea lanaldia berrantolatu eta murrizteko eta hogeita hamabost orduko lanaldia progresiboki ezartzeko Foru Komunitateko Administrazioan, Nafarroako toki entitateetan eta Foru Komunitateko produkzio-sektore ezberdinetako enpresetan.

2. artikulua. Foru lege honen ondorioetarako, ondoko kontzeptuak honela ulertu beharko dira:

1. Lanaldiaren berrantolaketa:

a) Funtsezko aldaketak eguneko, asteko, hileko edo urteko lanaldiaren ordubanaketan.

b) Lana txandaka ezarri eta berrantolatu.

c) Ordutegi zatitua ordutegi jarraitua bihurtu, edo alderantziz.

d) Errendimentuagatiko ordainketa sistemak ezarri, lan denbora kentzen dutenak.

e) Beste edozein, urteko lanaldiari ertsuta ere, funtsean, lanaldi horren banaketa ezberdina badakar.

2. Lan denbora gutxitzea: urtean zehar osotara lan egin behar diren orduak gutxitzea, beti ere ondoko arazoirekin batetik bada:

a) Lanaldiaren murrizte zuzena.

b) Jai egun eta oporren gehitzea.

c) Lege bidez edo hitzarmenen bidez ezarritako baimenengatiko denboraren gehitzea.

d) Lanaldiaren beste edozein murrizte, horrekin kontratazio berriak egiten badira.

3. artikulua. "Nafarroako administrazio publikoan zerbitzuko langileen 2000. urterako eta hurrengo urteetarako lan baldintzak sindikatueta-ko ordezkariekin negoziatzerakoan, Nafarroako Gobernuak lanaldia berrantolatu eta murrizteko behar diren neurriak aurkeztuko ditu. Negoziazio Mahai Orokorrean, hartan azter daitezkeen; neurri horiek 35 orduko lan astea ezartzea bideratuko dute, lanaldi orokorra egiten dutenentzat, eta hein bereko lanaldi-murrizketa txandaka edo txanda berezitan lan egiten dutenentzat.

Asteko 35 orduen urteko zenbaketak 1.592 ordu egiten du, guztira.

Neurri horiek aplikatzeak lanpostu berrien beharra ekarriko du, behar horiek betetzea ezinbestekoa bada zerbitzuaren maila mantentzeko. Horren berri eman beharko da kasuan kasuko enplegu eskaintza publikoan sartzeko.

Bai lanaldiaren murriztea zehazteko formulak, bai zerbitzua bermatzeko behar den enplegu egonkorren sorrera zehazteko formulak, langileen legezko ordezkariekin negoziatu beharko dira.

4. artikulua. 1.- Nafarroako Gobernuak, hurrengo artikuluan esaten denaren arabera, lanaldiaren berrantolamendua eta murrizketa sustatuko ditu enpresetan, baldin eta Foru Komunitateko Administrazioak, toki entitateek edo haien menpeko organismo autonomoek partehartze maioritarioa badute aipatu enpresen kapitalean, zuzenean edo zeharka.

2.- Era berean, aparteko orduak mugatzearena ere bereganatuko dute.

5. artikulua. 1. Nafarroako Gobernuak lanaldiaren berrantolamendua eta murrizketa sustatu-

ko ditu Foru Komunitateko produkzio-sektore eta zerbitzu guztietan, aurreko artikuluetan adierazitako terminoetan.

Horretarako, ondorengo laguntzak ezartzen dira, besteren konturako langileei kontratu mugagabeak egitea bultzatzeko, bai lanaldi osorako, bai zati baterako, enpresetan lortzen diren akordioetatik ondorioztatzen direnak, plantila osorako edo haren zati baterako.

2. Urteko lanaldiaren murriztea 100eko 5ekoa izanen da, gutxienez; aldi batean edo bitan antolatatu dai-teke, betiere lanaldiaren murrizketa bi urteetako bakoitzean urteko orduen 100eko 2 baino gehiagokoa bada.

Urteko lanaldiaren murrizketa, lan egutegia malgutzeko neurriekin edo bestelakoekin konpensatu beharko da.

Hori dela eta, enpresek lanaldiaren murrizketa eta beraren berrantolamendua ezartzeko plan bat egiten dute; hartan, justifikatu beharko dute murrizketa horrek ez duela lehiakortasunaren galerarik ekarriko ez eta produktuen edo zerbitzuen prezioa igoko ere.

Plan hori enpresako zuzendaritzak eta langileen legezko ordezkariak sinatu beharko dute enpresa bakoitzean.

Langileen legezko ordezkariak ez bada, enpresarioak edozein akordio hartzea planteatu ahal izanen dio hitzarmen kolektiboaren batzorde parekideari, baldin eta akordioa aipatu batzorde parekide horretan dauden sindikatueta-ko ordezkari-ekin sinatzen bada, halakorik bada; akordioa ordezkari gehien dituzten gizarte erakundeekin ere sinatu ahal izanen da.

3. Laugarren idazatian aurreikusitako laguntza guztiak jaso ahal izateko, lanaldiaren murrizte horrek ekarriko duen enplegu berri bakoitzak 100eko 3ko plantilaren gehikuntza sortuko du. Gehikuntza 100eko 3 baino gutxiagokoa bada, aipatu idazatik c) letrako laguntzak baizik ezin izanen ditu lortu enpresak. Bi kasu horietan, diru-laguntzak jasotzeko, beren plantilak lan-kontratu mugagabeekin handitzen dituzten enpresek langile horiek gutxienez hurrengo lau urteetan mantenduko dituzten konpromisoa hartuko dute.

4. Arestian aipatu baldintza betetzen dituzten enpresek eskubidea izanen dute ondoko zerga-onurak aplikatzeko:

a) Amortizatzeko askatasuna dagoen ibilgetu materialerako eta erosi berritako materialerako.

b) Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legearen 63. artikulua aipatzen duen kenkaria 100eko 25era igotzea.

c) Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legearen 71. artikularen 1 eta 3 idazatiek aipatzen duten kenkaria 100eko 50era igotzea. Enpleguaren handitzea ebaluatzeko erabiliko den erreferentzia-plantila, lanaldiaren murrizketa eta berrantolamendua ezartzeko akordioa indarrean sartu aurreko urteari dagokiona izanen da.

Zerga onura horiek jaso nahi dituzten entitateek tributu-administrazioari Ezarpen Plana aurkeztu beharko dio; hartan, inbertsioei eta lana sortzeri buruzko programa jasoko da, bai eta lanaldia berrantolatu eta murrizteari buruzko proiektu teknikoak ere.

Aurreko idazatietan aipatzen den enpleguaren gehikuntza lanaldi osokoa baizik lanaldi partzialekoa bada, dirulaguntzen zenbatekoa proportzioan gutxiagotu beharko da.

5. Neurri hauek bi urtez izanen dute indarra, Foru lege hau indarrean sartzen denetik aurrera; edonola ere, epe hori zabaldu ahal izanen da.

Lege honek lortu nahi duen helburua lortzeko ematen diren zerga laguntzak eta zuzeneko laguntza bateragarriak izanen dira enpresak jaso ditzaketen gainerako guztiekin.

Azken xedapenak

Lehena. Nafarroako Gobernuari baimena ematen zaio foru lege hau garatzeko behar diren erregelamendu mailako xedapenak eman ditzan.

Bigarrena. Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra. Hala ere, ondorio ekonomikoak 2000. urteeko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu.

Foru Lege proposamena, eskubide sozialen gutun baterako

GIZARTE GAIETAKO BATZORDEAK ONETSITAKO IRIZPENA

Biltzarreko Erregelamenduko 136.6 artikuluan ezarritakoa betez, Gizarte Gaietako Batzordeak eskubide sozialen gutun baterako Foru Lege proposamenari buruz eman duen Irizpena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Proiektu hori 1998ko azaroaren 11ko 87 zk.ko Biltzarreko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Irizpen horri buruz, Osoko Bilkuran, emendakin hauek eta boto partikular hauek defendatzen ahaliko dira:

– 1, 2, 3, 4, 5, 6, 7, 8 eta 9. artikuluei eta zioen azalpenari boto partikularrak, «Ezker Abertzalea» Parlamentuko Taldeak aurkeztuak.

– 1 zenbakiko emendakina eta 5, 6, eta 7. artikuluei eta zioen azalpenari boto partikularrak, «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentuko Taldeak aurkeztua.

– 12, 20, 23, 31, 37 eta 46 zenbakiko emendakinek, «Askotarikoa» Parlamentuko Taldeko Begoña Errazti Esnal andreak aurkeztuak.

Emendakin horiek 1999ko martxoaren 10eko 20 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren.

Iruñean, 1999ko martxoaren 16an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

IRIZPENA

Foru Lege proposamena, eskubide sozialen gutun baterako

ZIOEN AZALPENA (EZ ONETSIA)

1. TITULUA

Xedapen Orokorrak

1. artikulua. Lege honen xedea.

Foru Lege honen xedea da Nafarroako Foru Komunitateko eremuan Eskubide Sozialen Gutuna aldarrikatzea, egoitza Nafarroan duten eta Nafarroan erroldatuta dauden (bi urteko egonaldia eta errolda) herritar guztiei segurtatuko diena lan bat eta oinarrizko errenta eskuratzea, herritartasunak ematen dituen eskubideez bere osotasunean baliatzeko aukera izan dezaten.

Horretarako desegokitasun sozialen gainean esku hartzeko bideak ezarriko dira, izan ere berregituratze ekonomikoak eta berrikuntza teknologikoak gure gizartean, besteak beste, langabezia estrukturala, lan prekarietatea, pobrezia hazkuntza eta hiritarren gero eta zati handiagoaren bazterketa sozialen kronifikazioa sortu dituzte.

2. artikulua. Lege hau iradoki duten printzipioek:

Herritartasun eskubide unibertsalak sendotzea lan merkaturako sarbidea itxirik duten pertsona guztientzat, behar den dirusarrerarik ez baitute besteak dituzten eskubide berekin bizitza duin bat izateko, kulturara iristeko eta etxebizitza, zerbitzuak, hezkuntza, osasuna eta gizartean integrazio osoa izateko ere.

Gizartearen produktutik hiritar bakoitzari dagokion zatia izateko eskubidea benetan aitortzea, bila ibili arren lanik aurkitzen ez dutenentzat oinarrizko errenta bat emanez.

Lanaldia banatzea lan bila dabilzanen artean, pertsona eta talde sozialen arteko elkartasun eta berdintasun printzipio unibertsalen izenean, eta hiritartasun eskubideak inplikatzeko duelako nork bere lanarekin laguntzea gizarte osoak ongizatea izan dezan.

II. TITULUA

Lanaldiaren banaketarako politika

3. artikulua. Nafarroako Administrazio Publikoko langileak.

Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen 2000. urterako eta hurrengo urteetarako lan baldintzak sindikatueta ordezkariekin nego-

ziazterakoan, Nafarroako Gobernuak lanaldia berrantolatu eta murrizteko behar diren neurriak aurkeztuko ditu Negoziazio Mahai Orokorrean, hartan azter daitezten; neurri horiek 35 orduko lan astea ezartzea bideratuko dute, lanaldi orokorra egiten dutenentzat, eta hein bereko lanaldi-murrizketa txandaka edo txanda berezitan lan egiten dutenentzat.

Asteko 35 orduko lanaldiaren urteko zenbaketak 1.592 ordu egiten du, guztira.

Neurri horiek aplikatzeak lanpostu berrien beharra ekarriko du, behar horiek betetzea ezinbestekoa bada zerbitzuaren maila mantentzeko. Horren berri eman beharko da kasuan kasuko enplegu eskaintza publikoan sartzeko.

Bai lanaldiaren murriztea zehazteko formulak, bai zerbitzua bermatzeko behar den enplegu egonkorren sorrera zehazteko formulak, langileen legezko ordezkariekin negoziatu beharko dira.

Nafarroako Gobernuak, Foru Komunitatean ordezkariekin dituzten bi sindikatuarekin 1999ko otsailaren 26an sinaturiko "Lanaldia berrantolatu eta murriztearen bidez kontratazioa sustatzeko akordioa" izenekoan esaten denaren arabera, lanaldiaren berrantolamendua eta murrizketa sustatuko ditu enpresetan, baldin eta Foru Komunitateko Administrazioak, toki entitateek edo haien menpeko organismo autonomoek partehartze maioritarioa badute aipatu enpresen kapitalean, zuzenean edo zeharka.

Era berean, aparteko orduak mugatzearena ere bereganatuko dute, Nafarroako Gobernuak eta Nafarroako Foru Komunitatean ordezkariekin dituzten bi sindikatuarekin 1999ko otsailaren 26an sinaturiko "Aparteko orduak deuseztu eta murrizteari buruzko Akordioa" izenekoan esaten denari jarraituz.

4. artikulua. (KENDUTA)

III. TITULUA (KENDUTA)

Lanpostu banatua (KENDUTA)

5. artikulua. (KENDUTA)

IV. TITULUA

Oinarrizko errenta

6. artikulua. (KENDUTA)

7. artikulua. (KENDUTA)

8. artikulua. Zenbatekoa.

Oinarrizko errentaren zenbatekoa Lanbidearte-ko Gutxieneko Soldataren %75ko dirusarreraren adinekoa izanen da pertsona bakarrarentzat; Lan-

bidearteko Gutxieneko Soldataren %15 baino gehiago bigarren pertsonarentzat; Lanbidearteko Gutxieneko Soldataren %10 baino gehiago hirugarrenetik aurrerako pertsona bakoitzeko.

Familia batek ezin izanen du Lanbidearteko Gutxieneko Soldataren %125 baino gehiago jaso oinarrizko errenta gisa.

9. artikulua. (KENDUTA)

10. artikulua. Betebeharrak.

Oinarrizko errentaren pertsona onuradunek, hori kobratzeko egoeran dauden bitartean, Administrazioarekin negoziatutako akordio bat sinatu beharko dute, zeinetan ezarriko baita zein jardueratan parte hartu beharko duten hezkuntza, presakuntza edo sustapenaren arloetan.

V. TITULUA **Finantzaketa**

11. artikulua. Foru Lege honetan hartutako

neurriak Nafarroako Foru Komunitateko aurrekontu arrunten bidez finantzatuko dira.

Xedapen gehigarria

Bederatzi hilabeteren buruan erregelamenduzko xedapenak eta xedapen osagarriak emanen dira, foru lege honetan ezarritakoa hobeki bete eta gara dadin.

Azken xedapenak

Lehena. Derogatu egiten da Foru Lege honek xedatuari kontra egiten dion maila bereko ala apalagoko xedapen oro.

Bigarrena. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra Foru Lege honek.

Azken xedapena (KENDUTA)

Xedapen indargabetzailea (KENDUTA)

G Saila:
JAKINARAZPENAK, DEIALDIAK ETA OHARRAK

“Ingurugiroaren kudeaketa” deritzon aurrekontu-programari buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganbarak egina

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko otsailaren 16an eginiko bilkuran, erabaki zuen Kontuen Ganbarak egindako “Ingurugiroaren kudeaketa” deritzon aurrekontu-programari buruzko fiskalizazio-txostena argitara dadila agintzea.

Iruñean, 1999ko otsailaren 17an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

“Ingurugiroaren kudeaketa” deritzon aurrekontu-programari buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganbarak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (22. or.).
 - II. Helburua (23. or.).
 - III. Norainokoa eta mugak (23. or.).
 - IV. Jardueraren deskribapen laburra (23. or.).
 - V. Ondorioak eta gomendioak (25. or.).
 - V.1. Ondorioak (25. or.).
 - V.2. Gomendioak (28. or.).
- I. Eranskina.-** Programako ekintzak eta adierazleak (28. or.).

I. SARRERA

Kontuen Ganbarak 1998rako zeukan fiskalizazio-programaren barnean sartu zen “Ingurugiroaren kudeaketa” izeneko aurrekontu-programaren kudeaketa fiskalizatzea. Aurrekontu-programa hori Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentukoa da.

Programari buruzko dokumentuetan esaten denez, “ingurugiroa zaindu nahi da, prebentzio-eginkizunaren bitartez, hiri, industria, nekazaritza, abeltzaintza edo zerbitzuen arloko giza jarduerak eragiten dituzten ondorioak saihestu edo gutxitze-

ko eta bioaniztasunaren babesa ziurtatzeko, hazkuntza jasangarria –hau da, gaur egungo gizartearen beharrianak etorkizunekoak kaltetu gabe asetuko dituen– sustatuz, natur baliabideak modu arrazionalen erabiliz eta bizi-kalitatea hobetuz, beti ere lurralde-garapena orekatua izanik. Baliabide hidrikoak, energia berriztagarriak eta eskariak hobeki aprobetxatu eta kudeatzea”.

Horretarako, helburu batzuk adierazten ditu, zeinak ingurugiro-kalitateari, naturaren babesari eta oihan-antolamenduari baitagozkie, eta, baita ere, adierazle-multzo bat. 1997ko aurrekontuetan aurreikusitako helburu eta adierazleak 1. eranskinean daude sartuta. Programak jasotzen dituen arauzko xedapen aplikagarri nagusiak honako hauek dira:

- 38/72 Legea eta 833/75 Dekretua, ingurugiro atmosferikoari buruzkoak.
- 42/75 Legea eta 1163/86 Errege Dekretu legegilea, hiri hondakin solidoei buruzkoak.
- 13/1994 Foru Legea, irailaren 20koa, hondakin bereziak kudeatzeari buruzkoa.
- 4/82 Foru Dekretua, kutsaduraren aurkako inbertsioetarako laguntzei buruzko Erregelamendua, eta 186/91 Foru Dekretua, ingurugiro auditoriak egiteko laguntzei buruzkoa.
- 327/1992 Foru Dekretua, ingurugiroarekin zerikusia duten jardueren dirulaguntzak emateko erregimena ezartzen duena.
- 20/86 Legea eta 833/88 Errege Dekretua, hondakin toxiko eta arriskutsuei buruzkoak.
- 1302/86 Errege Dekretu legegilea eta 1131/88 Errege Dekretua, Ingurugiro Eragina Ebaluatzei buruzkoak.
- 10/1994 Foru Legea, lurraldearen antolamendu eta hirigintzari buruzkoa.
- 6/87 Foru Legea, Eskualdeko Hirigintza Arauei buruzkoa.

- 4/89 Legea, naturguneak eta basa fauna eta flora kontserbatzeari buruzkoa.

- 16/89 Foru Legea eta 32/90 Foru Dekretua, jarduera sailkatuen kontrolari buruzkoa.

- 13/1990 Foru Legea eta 59/1992 Foru Dekretua, Nafarroako oihan ondarea babestu eta gartzeari buruzkoa.

- 2/1993 Foru Legea, basa fauna eta haren habitatak babestu eta kudeatzeari buruzkoa.

- 13/1994 Foru Legea, hondakin bereziak kudeatzeari buruzkoa.

- 9/1996 Foru Legea, Nafarroako Naturguneei buruzkoa.

Baita ere, gogoan eduki behar da ingurugiro-arloan komunitateko xedapenek daukaten eragina.

Programak agertzen duen gastu-aurrekontua 3.660 milioi pezetakoa da, eta dirusarrera-aurrekontua, berriz, 929 milioikoa.

Kudeaketaz guztira 214 pertsona arduratzen dira; horietatik gehienak, 138 pertsona, ingurugiroko zaindariak eta mendizainak dira.

II. HELBURUA

Nafarroako Kontuen Ganbara arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, 1998rako duen fiskalizazio-planaren barruan sartu da "Ingurugiroaren kudeaketa" aurrekontu-programaren kudeaketa fiskalizatzea.

Lan hau egitean, Kontuen Ganbarak honako helburu hauek erdietsi nahi ditu:

- Programaren aurrekontu-betetzeak egoztekoak zaizkion gastu eta dirusarrera guztiak epigrafe ekonomikoetan jasotzen dituela egiaztatzea, betetze horren arrazoizkotasunari buruzko iritzia eman ahal izateko.

- Programazioaren xede den jarduerari aplikatzekoa den legezkotasun-printzipioa bete dela egiaztatzea.

- Programaren gaineko ardura daukan administrazio-unitatean ezarritako barne-kontrolerako sistemak ebaluatzea eta, hala beharko balitz, horiek hobetzeko egokitzat jotzen diren gomendioak proposatzea.

- Programako proiektu bakoitzarekin lortutako efikazia-, efizientzia- eta ekonomia-maila aztertzea.

III. NORAINOKOA ETA MUGAK

Aurreko helburu horiek gogoan izanik, lanaren arretagai nagusia hala aplikaturiko administrazio-prozedurak nola programak 1997rako zeukan aurrekontua berrikustea izan da. Antolamenduari, kontabilitateari eta barne-kontrolari dagozkion alderdiak aztertu eta ebaluatu ditugu, eta, eskura izandako informazioaren arabera, aurrekontua burutzean lortutako efikazia-, efizientzia- eta ekonomia-maila ikertu dugu.

Ganbara honek erabili ohi dituen programek osatu dute aplikaturiko metodologia. Programa horiek Auditoretza Gidetan agertzen dira, eta Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolerako Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsiriko Sektore Publikoko Auditoretza Arau eta Printzipioen barnean garatuak daude.

Txostena bost ataletan banatua dago: sarrera, helburuak, norainokoa eta irispenna, jardueraren laburpen bat eta iritsitako ondorioak. Baita ere, eginiko lanetik eratorritako gomendioak jasotzen dira. Atal horien osagarri gisa, eranskin bat dago; bertan xehekatzen dira aurrekontu-programako ekintzak eta adierazleak.

Muga orokor gisa, adierazi beharra dago programa burutzean izandako efikazia-, efizientzia- eta ekonomia-maila aztertzearen helburua lortzeko garaian eragina izan duela, alde batetik, programa aurkeztean helburuak eta adierazleak behar adina zehaztu eta zenbatu ez izanak, eta, bestalde, helburu horien egokitasun- eta betetze-mailaren jarraipen sistematikorik egin ez izanak.

Zelaiko lana 1998ko maiatzetik irailera bitartean egin du bi auditoretza-teknikariz eta auditore batez osaturiko talde batek, zeinak Kontuen Ganbararen zerbitzu juridiko, informatiko eta administrazioen etengabeko lankidetzan izan baitu.

Ingurugiro Departamentuko langileei lan hau egitean eskaini diguten laguntza eskertu nahi diegu.

IV. JARDUERAREN DESKRIBAPEN LABURRA

Programaren aurrekontu-betetzetik abiatuz, "Ingurugiroaren kudeaketa" programaren benetako jardueraren deskribapen labur bat egingo dugu:

Gastuen aurrekontu-betetzea

Atala	Hasierako aurreikuspena	Bateratua	Betetzea	Guztiaren %
Langileak	829.364.000	807.300.629	736.287.243	24,28
Ohiko ondasunak eta zerbitzuak erostea	290.500.000	313.310.367	283.644.359	9,35
Ohiko transferentziak	188.300.000	219.402.074	201.645.222	6,65
Inbertsio errealak	1.124.300.000	1.032.397.926	787.829.786	25,98
Kapital-transferentziak	1.213.000.000	1.264.613.455	1.016.436.306	33,51
Variación de activos financieros	15.000.000	15.000.000	7.152.628	0,24
Guztira	3.660.464.000	3.652.024.451	3.032.995.544	100,00

Gastu horietatik, ingurugiro-proiektuari 1616 milioi dagozkio, eta oihan-antolamenduari buruzkoari 1417 milioi.

Atal bakoitzean biltzen diren gastu-kontzeptu nagusiak honako hauei dagozkie:

- 1. atalean, langileen gastuak; horien ordainketak sartuak daude.

- 2. atalean, ohiko ondasun eta zerbitzuak erostea; funtzionamendu-gastuez (argia, ura, bidaiak-gastuak, bulego-materiala eta abar) gain, honako hauek ere kontabilizatzen dira: mehatxaturiko edo babesturiko espezieen populazioei buruz eginiko edo eskaturiko azterketa eta lan teknikoak eta naturguneen mantentzea.

- 4. atalean, ohiko transferentziei buruzkoan, nagusiki honako hauek daude sartuta: espezieak babestearen ondorioz eragindako kalteei eta gutxieneko emari ekologikoak mantentzearen ondorioz zentral elektriko txikiei eragindakoei aurre egiteko emandako kalteordainak.

- 6. eta 7. ataletan (inbertsioak eta kapital transferentziak), batez ere oihan-berritzeak, higaduraren zuzenketak, suteak saihesteko lanek, mendien antolamenduak eta abarrek erakarritako gastuak jasotzen dira. Atal batean edo bestean kontabilizatzen dira, nolakoak diren: Komunitatearen jabetzakoak diren lursailen eginikoak, edo lursailen (inbertsioak) edo beste entitate batzuen (transferentziak) titulartasuna kontuan izan gabe egin behar diren Gobernuaren obligazioak, legeak ezarritakoak.

Aurrekontu-gastuetan agerpena duen eginkizun zehatz horrekin batera, badago kontuan hartu behar den beste lan bat; alegia, jarduketan orientazioa edo plangintza, zeinak garrantzi gutxiago baitauka aurrekontuen ikuspegitik, baina eragin handikoa da, ekartzen dituen ondorioak kontuan hartuz. Horrela, adibidez, plan zuzentzaileak aipatu behar dira.


Dirusarrerei dagokienean, hauxe da betetze-goera:

Kontua/Atala	Hasierako aurreikuspena	Bateratua	Betetzea
3. Tasak eta bestelako dirusarrerak	143.200.000	143.200.000	147.747.404
7. Kapital-transferentziak	763.700.000	793.813.455	1.235.912.873
8. Finantza-aktiboen aldaketa	22.000.000	22.000.000	27.603.269
Guztira	928.900.000	959.013.455	1.411.263.546

Dirusarrera horietatik, ingurugiro-proiektuari 488 milioi dagozkio, eta, oihan-antolamenduari buruzkoari, 923 milioi. Horrelako dirusarrerak honako kontzeptu nagusi hauetan jasotzen dira: fondo europarrak, 1206 milioi, eta ehiza eta

arrantzarako lizentzia eta baimenen ondoriozkoak, 93 milioi.

Horretarako, Departamentuak honako organigrama hau dauka, 97-12-31koa:



*Ingurugiro Zuzendaritza Nagusiaren guztizkoa: 214

- Zuzendari Nagusia: 1
- A Maila: 23
- B Maila: 18
- C Maila: 42
- D Maila: 114
- E Maila: 16

Parentesi artean, unitate bakoitzean dauden langileak

Organigramaren azterketatik ondorioztatzen da unitateen osaera oso heterogeneoa dela; txikiak pertsona bakarra dauka, eta, handienak, 100 baino gehiago.

Langile horietako gehienak zelaiko lanetan aritzen dira: zaindariak, mendizainak eta abar.

Komeni da azpimarratzea ingurugiro- eta oihan-alorretan lana aholkuak ematekoa edo arauak egitekoa dela hein handi batean, kudeaketa toki-entitateen eskumenekoa baita, eta lanetako asko "Gestión ambiental, viveros y repoblaciones de Navarra" enpresa publikoaren bitartez egiten direla. Enpresa horren kapitalaren ehuneko ehun Foru Komunitatearena da.

V. ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

V.1. ONDORIOAK

a) Programaren aurkezpena eta egitura.

Aurrekontu-programaren aurkezpena eta egitura osatu gabe dago, honako honengatik:

- Egin beharreko jarduera zein den helburuek ongi agertzen badute ere, hori oso modu orokorrean definitzen dute, eta ez daude zenbatetsita, ezta aurrekontu-kredituekin erlazionatuta ere.
- Egin beharreko administrazio-kudeaketa zenbaterara mugatzen dira adierazleak.
- Helburuak burutu eta betetzeari buruzko berriazko jarraipenik ez da egin, eta ekitaldian

zehir buruturiko jarduketei buruzko urteroko oroitidazkirik ere ez da prestatu.

b) Programaren aurrekontu-betetzea 1997an.

Aurrekontu-betetzea (ikus 4. epigrafea) honako hau izan da:

	(milioitan)		
	Hasierakoa	Bateratua	Betetzea
Gastuak	3.660	3.652	3.033
Dirusarrerak	929	959	1.411

Ikus daitekeen bezala, aurreikusitako gastuen %83 bete egin da.

Dirusarrerei dagokionez, hasieran aurreikusitakoen %152 bete da.

Gastuen arloan, betetzerik baxuena inbertsioen atalari dagokio, hasierako aurrekontuaren %70ekoa izanik. Betetze-maila horren zergatia hauxe da: 356,5 milioiko aurrekontua zeukaten 13 kontabilitate-lerrok 100,6 milioiko betetzea besterik ez dute izan, hau da, %28koa.

c) Gastu-aurrekontuaren betetzea.

Buruturiko jarduera aski ongi agertzen dute aurrekontu-likidazioan aurkezturiko zenbatekoek. Hala ere, hauxe adierazi behar dugu:

1.- Langile-kudeaketa zentralizatuaren eta erabilitako kontabilitate-praktikaren ondorioz, urtearen amaieran idazpen orokorrak egiten dira langileei buruzko lerroetan, zintzilik dauden saldoak egozteko. Kontuen Ganbara honen beste txosten batzuetan egin dira jadanik jokabide horri buruzko iruzkinak. Hain zuzen ere, jokabide horrek eragina dauka programa honetakoak diren kontabilitateko langile-lerroetako batzuetan.

2.- Nafarroako mendietan eginiko zenbait gastu inbertsio edo kapital-transferentzia gisa kalifikatzeak zalantzak eragiten ditu, zeren, jabetza beste titular batena izan arren, departamentuaren ustez inbertsio gisa kalifika baitaitezke, mendiek daukaten gizarte-funtzioa eta Nafarroako Gobernuaren eskuhartzearekiko horien menpekotasuna kontuan izanik.

3.- "Navarra de Medio Ambiente Industrial" (NAMAINSA) enpresa publikoari eginiko transferentziak handiagoak dira eginiko gastuak baino. Euren artean dagoen aldea eta enpresak aurkezturiko mozkinak ia kopuru berekoak dira.

d) Dirusarrera-aurrekontuaren betetzea.

Departamentuak ez ditu kudeatzen fondo europearretatik datozen dirusarrera-kontusailik

garrantzietsuenak. Departamentuak dirusarrerak kutxa-irizpidearekin kontabilizatzea besterik ez du egiten, Nekazaritza Politika Komunaren jarraipena egiteko ataletik horien kobrantzari buruzko jakinarazpena jasotzen duenean. Sistema horrek azaltzen du aurrekontuko diru-kopuruaren gaineko betetze-portzentaia altua. Gai horri dagokionez, ikus bedi Kontuen Ganbarak Europako Batasuneko transferentzien esparru orokorrari buruz eginitako txostena, zeina 1997ko martxoaren 5eko 15. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu baitzen.

e) Legezketasuna.

Oro har, aztertutako jarduketek kontratazio publikoaren printzipioak errespetatu dituzte, salbuespenak honako hauek izanik:

- Ureztatzaileen komunitatearekin Murillo-Limasko lekune naturala zaindu eta mantentzeko izenpeturiko akordioa, 2,7 milioi pezetako zenbatekoa aurreikusten duena, prozedura zeharo alde batera utziz egin baita.

- IRABIA oihan-pista egokitzeko obra, espedientearen ez baita behar bezain argi geratu zein diren onetsitako proiektua eta zenbatekoa. Ibarreko Batzarrak sustaturiko obra da, eta Gobernuak zati bat hartu zuen bere gain, zeinak obra guztia %62 osatzen baitzuen, gutxi gorabehera. Hala ere, Gobernuak proiektuko ordainsarien osotasuna ordaindu du, hau da, 6,9 milioi pezeta. Ez da behar adina arrazoitu suteei aurrea hartzeko azpiegitura gisa jo izana, eraikuntzaren kalitatea –hormigoizko bidea– oihan-ustiategietara iristeko pista bati hein handiagoan baitagokio. Obra burutzean zenbait atzerapen izan dira, eta horiek azaltzeko "eguraldia" besterik ez da aipatu.

Ondorio orokor horretatik at, honako puntu azpimarragarriok nabarmentzen dira:

- Hainbat espediente osatzean eginiko akatsak; zehazki, txosten batzuk ez egotea.

- Lanen espezializazio-maila dela-eta, praktikan, maiz asko ez dago konkurrentziarik. Kasu horietan, ez da beti garbi geratu zein sistema erabili den eginiko lanaren kontraprestazioak zehazteko.

- Kontratuei buruzko legeak ez ditu arautzen VIVEROS-i eginiko enkarguak edo haren ardura-pean utzitakoak, berori enpresa publikoa izaki. Gai horri dagokionez, ikus bedi Nekazaritza, Abeltzaintza eta Mendi Departamentutik hirugarrenei esleitu zaizkien eta 1992 eta 1993 urteetan Nafarroako mendietan egindako obra eta eraikuntzekin zerikusia duten lanei buruz Nafarroako Kontuen Ganbarak egindako txostena. Txosten hori

1994ko azaroaren 24koa den eta 70.zk.a duen Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

f) Barne-antolamendu eta -kontrola.

Azken urteotan, ingurugiro-arazoak administrazio publikoen beste eginkizun bat bailiran hartuak izan dira. Horregatik, Ingurugiro Departamentuaren eginkizun eta erantzukizunak etengabe aldatzen ari direla nabaritzen da; eskumenak ugaritzen ari dira, eta unitate organikoen nahiz langileen lekualdatzeak ere egiten ari dira. Hitz gutxitan, oraindik sendotze-bidean dagoen Departamentu bat dela jo dezakegu. Halaber, Departamentuaren barne-egituraren etengabeko aldaketa-prozesu bat gertatzen ari da, eta horrek aurretik zeuden bulego eta atalak ukitu ditu.

Departamentuak 500 metro baino gehiagoko hiru lokal erabiltzen ditu, eta Herrilan Departamentuaren lokaletan bi pertsona dauzka kokatuta. Era berean, azpimarratu beharrekoa da ordurarte Osasun Departamentuarenak ziren ingurugiro-kalitateari buruzko hainbat eskumen hartu zirela, baina funtzionarioak ez zirela transferituak izan, eta aipaturiko departamentuaren menpekoak izaten segitzen dutela.

Horrela sakabanatuta egotearen ondorioz, eta Departamentuak artxibo orokorrik ez duenez gero, dokumentazioa aurkitzeko problemak sortzen dira, bulegoetan barreiatuta dagoelako, dokumentuak norik erabili dituen. Adierazi behar da, baita ere, dela artxibo-problemengatik, dela izapidatze-problemengatik, espedienteetako hainbat puntu ez direla behar adina arrazoitu, nola baitira, epeak, beharrezkoak ziren txosten guztiak edo zenbait justifikazio.

g) Efikazia, efizientzia eta ekonomia.

Helburu eta adierazleei buruz eginiko iruzkinak gogoan edukiz, eta programako jarduketari buruzko oroit-idazki orokorrik ez egotearen ondorioz, ezin dugu iritzirik eman programako jarduketa bakoitzaren kudeaketan lortutako efikazia-, efizientzia- eta ekonomia-maila orokorrari buruz.

Hala eta guztiz ere, eginiko lanetik honako hau ondorioztatzen da:

- Mehatxaturiko espezieak kontserbatzeko hainbat plan prestatzeari dagokionez, azterlanak egiteko kontratazio batzuk egin dira. Azterlan horiek egitea derrigorrezkoa da, basa fauna eta haren habitatak babestu eta kudeatzeari buruzko 2/93 Foru Legearen arabera. Lege horrek xedatzen duenez, espezie bat mehatxaturiko espezieen katalogoan sartu ondoren, Gobernuak onetsiko

duen eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko den kontserbazio-plan bat idatzi behar da.

Eginiko azterlanek espezie horien bizi-baldintzak zein diren hobeki ezagutzea ahalbidetzen dute, baina planak onetsi eta argitaratzeko faseari oraindik ez zaio ekin.

Horregatik, kudeaketa erabatekoa izan denik ezin dugu esan, fauna babesteko aurreikusitako neurriak ez direlako bete; horrek, hain zuzen, oztopatu egiten du balioespena.

- Azterlan horiek eginez, beranduago erabakiak hartzen lagundu beharko duten informazioak lortzen dira. Horrela, adibidez, azken urteotan basoiloa mantentzeko ahaleginak egin badira ere, eskura dauden azken azterlanetatik ondorioztatzen da litekeena dela espezie hori Nafarroan bideragarri ez izatea. Adibide horrek agertzen du beharrezkoa dela aurretiazko irizpide batzuk ezartzea, zeinek posible egin beharko baitute espezieen kontserbaziorako erabilitako baliabideak ahalik eta neurririk handienean aprobetxatzea.

- Gatz-hondakindegia zuzentzeko lanak atzeratu egin dira, POSUSAREN jabetza eskualdatzean izandako arazoengatik eta ANECOPEkin iritsi beharreko akordioaren definizioan sorturiko zailtasunen ondorioz, zeinek sinatze-ekitaldia berandutu egin baitute. POSUSAREN instalazioak ingurugiroaren ikuspegitik bereonertzeko jarduketei dagokionez, ekintzak eta konpromiso paraleloak burutzen ari dira, ez beti koordinaturikoak, ordea, alde batetik NAMAINSA enpresa publikoaren bitartez eta, bestalde, Departamentuaren bitartez. Egoera hori gertatu da ez delako izan eginkizun eta erantzukizunen banaketa argirik.

Lurzoruak deskontaminatzeko lanek burutze apala izan dute, %45ekoa, ekintza puntualak egin baitira; izan ere, 96-99 eperako, kohesio-fondoaren bitartez finantzatu beharreko jarduketa-plan bat aurreikusi zen, baina ez zen azkenean onetsia izan. Burutze urri horretan eragina izan du, baita ere, kutsaturiko lurzoruen definizioari eta ezaugarri buruzko Estatu araudia promulgatzeari dagokionean izandako berandutzak.

- Oro har, hainbat urtetarako eginiko eta onetsitako jarduketa-planetan edo hitzarmenetan aurreikusitakoaren ondoriozkoak diren jarduketek hobeto funtzionatu dutela ikusi ahal izan da.

Txosten hau egiten ari zenean, plan horietako batzuk izapidatzen ari ziren; besteak beste, oiha-nei buruzkoa eta hondakinei buruzkoa aipa daitezke.

Gure ustez, mota horretako planak egiteak Ingurugiro Departamentuaren jarduketak erraztu eta antolatu egiten ditu.

- Eskumenak beste departamentu edo administrazio batzuekin elkarbanatuta dauden kasu guztietan, zailtasun handiagoa dago jarduketak osatu eta amaitzeko.

h) Bukaerako iruzkin gisa, Kontuen Ganbara honek derrigorrezkotzat jotzen du adierazle batzuk ezartzea, horien benetako jarraipen bat egitea eta azken oroit-idazki bat prestatzea, Komunitateko ingurugiroaren bilakaera erakutsiko diguten hainbat datu eskura eduki ahal izan ditza-gun. Balioespen horrek erraztu egingo du ingurugiro-politiken plangintza egitea, edo, hala bada, horiek egokitzea, eta,aldi berean, ingurugiro-kontuek gizartean ulermen handiagoa izan dezaten balio izan behar du, oraindik ere zerbait berria baitira.

V.2. GOMENDIOAK

Horren guztiaren ondorioz, hauxe gomendatzen dugu:

- *Programa beharrezkoak diren lanabesez hornitzea, haren helburuak zenbatetsi ahal izateko, horien betetze-maila ikusi eta egiaztatu ahal izateko eta programa betetzean gerta litezkeen desbiderapenak aztertu ahal izateko.*

- *Kudeaketa publikoko kontabilitate- eta aurrekontu-printzipio eta irizpideak ahalik eta zorroztasunik handienaz aplikatzea, bereziki inbertsioen eta kapital-transferentzien arteko bereizketari edo inbertsioen eta ohiko gastuen artekoari dagokienean.*

- *Murillo-Limasko ureztatzaile-komunitatearekin dagoen hitzarmena berrikusi eta legediari egokitzea.*

- *Espediente guztiak osatzea, kontratu-araudiaren arabera derrigorrezkoak diren txosten eta dokumentu guztiekin; halaber, lanen espezializazioaren ondorioz konkurrentziarik gabekoak diren kasuetan, kontraprestazioak finkatzeko jarraitutako irizpideen konstantzia egon dadila.*

- *Departamentuaren eginkizunak definitzea, eskumen eta unitateen gehitzea buka dadin eta, horrekin, haren egitura modu nahiko egonkorrean zehaztua gera dadin.*

- *Artxibo-sistema bat ezartzea, espedienteak kontrolatzea eta aurkitzea errazteko, Departamentuaren lokalen sakabanaketa geografikoaren ondorioz sortzen diren arazoak kontuan izanik.*

- *Lanerako sistematika bat ezartzea, buruturiko jarduketak eta, beraz, aurrekontu-programan aurreikusitako helburuen betetzea balioestea ahalbidetuko duena. Azken batean, lana zer nolako efikazia eta efizientziaz egiten den balioestea ahalbidetuko duena.*

- *Fauna eta flora babestu eta kontserbatzeko erabilitako baliabideak hobeki aprobetxatzeko zein irizpide jarraitu behar diren definitzea. Begibistakoa da baliabide urriekin ezin daitezkeela animalia eta landare guztiak babestu, eta gastuaren efikaziak beharrezko egiten du interesik handienekoak diren espezieetara bidera daitezela.*

- *Plan guztiak idatziz eta onetsiz, babes-prozesua guztiz burutzea.*

- *Naturguneei dagokienean, babesturiko eremu horien defentsa natur ingurunearen erabilera publikoaren aldeko gero eta eskari handiagorekin bateragarri egitea. Horren ondorioz, beharrezkoa izango da, seguraski, erabilera publikorako eremu alternatiboak eratzea, interes berezikoak direnak babestu ahal izateko.*

- *Gatz-hondakindegia bereoneratzeko lanak koordinatzea eta argi eta garbi definitzea zein organismok burutu behar dituen.*

- *Jarduera bakoitzari buruzko urte anitzeko planak egin eta onets daitezzen sustatzea, horrelakoak eginak dauden kasuetan kudeaketa errazagoa eta hobea dela ikusi izan baita.*

- *Ingurugiro-politika orok, arrakasta izan behar badu, beharrezko egiten du herritarrek ulertua izatea, horiek onar ditzaten politika hori ezartzeak dakartzan kostuak nahiz ingurugiroan jarduera ekonomiko modernoak eragiten dituen aldaketak. Hori dela-eta, beharrezkoa da ingurugiro-arazoak herritarrei ezagutarazteko neurri guztiei bultzada ematea.*

Jesús Muruzábal Lerga, lan honen arduradun den auditore jaunaren proposamenez eman da txosten hau, indarreko araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 1999ko otsailaren 11n

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

I. ERANSKINA.- PROGRAMAKO HELBURUAK ETA EKINTZAK

PROGRAMAKO HELBURUAK ETA EKINTZAK

Ingurugiro-kalitatea:

- *Industri, nekazaritza, abeltzaintza, merkataritza edo zerbitzu jarduerak ingurugiro-betekizunei*

egokitzea, uraren, atmosferaren edo lurzorua kontrolatuz.

- Lurrazaleko eta lur azpiko uren eta airearen kalitatea kontrolatzeko sare bat mantentzea.

- Hiri-ingurugiroa zaintzea.

- Herritarrek parte har dezatela ingurugiroaren kudeaketan.

- Sailkaturiko Jardueri buruzko araudia aplikatzea, ingurugiro-kalitatea ikuskatu eta kontrolatzeko eginkizuna azpimarratuz.

- Ibaiak Osasuntzeko Plana burutzeari babes ematea eta uren kalitate-helburuak kontrolatzea.

- Hiri Hondakin Solidoei buruzko Plana burutzeari babes ematea.

- Industri hondakinei eta kutsaturiko lurzoruei buruzko Planaren jarraipena egitea.

- Dirulaguntzak enpresentzat, kutsaduraren aurkako inbertsioetarako eta auditoretzak egiteko.

- Dirulaguntzak granjenzat, euren ingurugiro-eragina minimizatzen.

- Ingurunean eragina daukaten jarduerak kontrolatzea, dela Ingurugiro Eraginari buruzko Adierazpenen bitartez, dela ingurugiro-kalteei edo lurzoru ez urbanizagarrian eginiko bestelako jarduketei buruzko azterlanen bitartez.

- Ibaietan emari ekologikoak mantentzea.

- Hondakindegia dituzten eremuak bereonerratzea.

- Hiri eta hegaztiei kalteak eragiten edo paisaia hondatzen duten linea elektrikoak kentzea.

- Harrobiak eta bestelako erauzketa-jarduerak leheneratzea.

- Europako Ingurugiro Agentziari eman beharreko datuak prestatzea.

- Ibaien emaria neurtzea, etorkizuneko eraentze- edo aprobetxamendu-proiektuen abiapuntugisa euren ekarpenak ezagutzeko.

- Pertsonen eta animalien osasuna kaltetzen duten ingurugiro-arriskuen eragina jasatea kontrolpean edukitzea.

Naturaren kontserbazioa:

- Natur baliabideen erabilera edo aprobetxamendua beharrezko duten jarduerak kontrolatzea.

- Naturguneak kontserbatzea.

- Ekosistemen, faunaren eta bere habitaten egitura-osotasuna babestea.

- Aurreko jardueren ondorioz degradaturiko naturguneak bereonerratzea.

- Intereseko naturguneen erabilera eta kudeaketarako Plana garatzea eta naturguneak egokitzea.

- Basa fauna zaintzea eta ehiza- nahiz arrantzabaliabideak kudeatzea.

- Mehatxaturiko espezieak leheneratzeko, kontserbatzeko eta maneiatzeko planak garatzea.

- Basa fauna babesteko eremuak kontserbatu eta kudeatzeko planak garatzea.

- Degradaturiko ibai-ibilguak bereonerratu eta mantentzea.

- Udalei laguntza ematea, euren inguruak leheneratzeko.

- Ingurugiroaren kudeaketan herritarrek parte har dezatela, ingurugiro-informazioaren eta hezkuntzaren bitartez.

- Interpretazio-zentroetan eta hegaztiak behatzeko zentroetan ingurugiro-hezkuntzako eta publikoari erantzuteko jarduerak burutzea.

- Pirinioetako Lan Komunitatean parte hartzea eta Akitaniarekin lankidetzan aritzea, elkarrekin hainbat jardura burutzeko.

- Ibaietako ibilguak hobetzea, uholdeen ondoriozko kalteak saihesteko edo ahal den neurrian arintzeko.

- Dragatze-lanak ibaietan.

Oihan-antolamendua:

- Oihanetako baldintza ekologikoak kontserbatzea eta hobetzea.

- Oihan-lurzoruen emankortasuna mantendu eta berreskuratzea, eta horien higadura saihestea.

- Nafarroako zuhaitzezko oihan-hedadura zabaltzea, osotasunean finantzaturiko oihan-berri-teen bitartez.

- Mendi-aprobetxamenduak seinalatzea eta baimentzea.

- Zuhaitzez estalitako mendien antolamendua sustatzea.

- Oihan-elkartegintza sustatzea.

ADIERAZLEAK

- Sailkaturiko jardueri buruzko 1200 espediente ebaztea.

- Sailkaturiko jarduerak ikuskatzeari buruzko 300 akta egitea.
 - 150 jarduera-salaketa izapidatzea.
 - Isurketa-baimenei edo ur-kontzesioei buruzko 50 espedienteri buruzko txostenak egitea.
 - Ingurugiro-eraginari buruzko 5 adierazpen proposatzea.
 - Lurrazaleko eta lur azpiko uraren kalitateari buruzko 1200 kontrol egitea.
 - Industri isurketen gaineko 800 kontrol egitea.
 - Airearen kalitateari buruzko 2000 kontrol egitea.
 - Hondakin arriskutsuei buruzko 100 adierazpen izapidatzea.
 - 15 enpresari dirulaguntzak ematea kutsaduraren aurkako inbertsioengatik; baita ere, 10 abere-ustiategi.
 - Sailkaturiko jardueretarako 5 laguntza tekniko kontratatzea.
 - 2 kokagune ezberdinetan lurzorua deskontaminatzeko lanei ekitea.
 - 15 linea elektriko kendu edo aldatzea eta ornitofaunarako arriskua zuzentzea beste 10etan.
 - 12 zentral hidroelektriko txikitan emari ekologikoak ezartzeko hitzarmenak.
 - 25 azterlan edo proiektu ezberdin kontratatzea.
 - Natur ingurunean burutu beharreko plan eta obra-proiektuen ingurugiro-eraginei buruzko 250 azterlanetarako txostenak egitea.
 - Ingurunea leheneratzeko 35 proiekturi dirulaguntzak ematea.
 - 30 ibaiertz bereoneratzea.
 - Naturguneetan 10 egokitzapen-obra burutzea.
 - Ingurugiro-hezkuntzari buruzko 30 eskola-proiekturi dirulaguntzak ematea.
 - Natura interpretatzeko 2 zentro ekipatzea eta horrelako 4tarako arreta. Irunberrin interpretazio-zentro berri bat eta Pitillasen hegazti-behatoki bat eraikitzea.
 - Ingurugiroarekin edo naturarekin zerikusia duten jardueri buruzko 45 proiektutarako dirulaguntzak ematea.
 - Ingurugiro-hezkuntzari buruzko 2 kanpaina burutzea.
 - 6 agerkari argitaratzea.
 - 32.000 ehiza-baimen eta 28.000 arrantza-baimen ematea.
 - 300 ehiztari-txartel ematea.
 - Ehiza-barrutiei buruzko 150 espediente izapidatzea.
 - Antolamendu zinegetikoari buruzko 40 plan onestea.
 - 10 ehiza-barrutirentzako dirulaguntzak ematea.
 - 300 ehiza-salaketa eta 125 arrantza-salaketa izapidatzea.
 - 1.000.000 amurarrainkume, 125.000 izokinkume eta amurarrain helduen 100.000 ale ekoiztea.
 - Faunaren errekupeazio zentroan 400 ale zaintzea.
 - Fauna ez zinegetikoak nekazaritzari eragindako kalteei aurre egiteko 200 kalteordain ematea, eta beste 30 ematea, fauna zinegetikoak eragindakoen ondorioz.
 - Ibaiak dragatzeko 47 eskariri baieztoko erantzuna ematea.
 - 555 Ha.-tan higadura zuzentzea.
 - 763 Ha.-tan landaretza hobetu eta kontserbatzea.
 - Oihan-lanei dirulaguntzak emateari buruzko 100 espediente baino gehiago ebaztea.
 - Zuhaitzez estalirik mendien 40.000 Ha.-ren antolamendua egitea.
 - 100 km.-tan suak ebakitzeko pistak.
 - Suteak saihesteko oihanzaintza 250 Ha.-tan.
 - Pinuaren prozesionariaren eta bestelako oihan-izurriteen aurkako borroka.
 - Oihan-berritzeak 300 Ha.-tan.
 - Nafarroako Oihanei buruzko Planeko 400 Ha.-tan oihan-masak hobetzea.



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA
ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonoa *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Aurrezki Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu

| | |
|---|--|
| HARPIDETZAREN PREZIOA
ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA
Urte bat 6.000 pta.
Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa 140 » .
Bilkura Egunkariaren aleko prezioa 175 » . | IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA
NAFARROAKO PARLAMENTUA
«Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala»
Arrieta 12, 3
31002 IRUÑA |
|---|--|